

Berrigara

Santa Katalina arriskuan

XV.eko ermita
paregabea
galtzar



APROBETXA ITZAZU UDABERRIKO ESKAINTZAK!

500.000

pezetarinoko deskontua izan dezakezu
Xsara edo Xantia bat erostean!



ION AUTOAK



CITROËN

Amillaga 36, Bergara Tf. 943 76 47 49 / 73



ELKAR

ELEKTRAGINTZA

ZURE
ZERBITZURA!!

Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.

BERGARA

Ametz



DEPILAZIOA:

- Beroa eta hotza
- Depilazio elektrikoa

AURPEGIKO TRATAMENDUAK

- Garbiketak
- Orbanak kentzeko
- Zimurren aurka
- Eta abar



GORPUTZEKO TRATAMENDUAK

- Presoterapia
- Algak
- Solariuma: 10 saio 6.000 PTA
- Masajea: *erlaxagarria, kiromasajea, linfa-drenajea*




AKUPUNTURA:

- Shirley Garciak emana: *Antsietatea, stressa, tabakoa, depresioak, gizentasuna*

MEDIKUAK LAGUNDUTA:

- Dieta pertsonalizatuak
- Barizeak
- Couperous-a



Nobedadea!

MIKROPIGMENTAZIOA
ezpainak, betileak...

■ Masterreka 19, behea. 943 76 46 53. ■



Hobetzeko neurtu egin behar da

Tomasa Zabaleta / San Xosepe elkarte presidentea

Etengabeko hobekuntzaren garaian bi-zi gara, eta gutako bakoitzak hobetzeko ahaleginak egiten ditu pertsona mailan, familia mailan edota gizarte mailan eta aurreko bizitzako egoera eta pasadizoe-kin konparaketak egiten ditugu.

Erakundeen edo elkarten eremura pasatuta, adituek diote hobetzeko neurriak hartu behar direla; eta neurtzeko baliabide batzuk behar dira.

San Xosepe jubilatuen elkarteak ere hobekuntza etengabea dauka bere helburuen artean, gure ustez, gizarte honetan aurrera egiten ez duenak atzera egiten duelako. Eta hobetzeko neurtu egin behar direla onartuta, neurtzeko baliabideak martxan jartzen ahalegintzen gara, eta gure kasuan, besteak beste, hauek lirateke: jardueren programa eta hobetzeko helburuak zehaztea, bazkideen urteko batzarrak onartuak, eta Zuzendaritza Batzordeak asanbladaren aurrean kontu ematea, onartu ondoren zer egin den jakinarazteko, horrela zuzendaritzaren gestioa nolabait neurtzeko asmoz.

1999ko memorian jaso nahi izan ditugu bazkideen mugimenduak, diru mugimenduak, egindako jarduerak eta bakoitzean izandako partehartzea, eta baita 1999ko asanbladak onartutako hobekuntzarako helburuak bete diren edo ez ere.

Ondorengo datuetan ikusten denez, aipagarria da antolatutako ekintzetan izan

den partehartzea: jolas jardueretan 1.637 lagun, kultur jardueretan 2.339 eta ospakizunetan 1.447. Guztira, 5.844 lagunek parte hartu dute antolatutako jardueretan. Eta guztien artean azpimarragarria da kultur jarduerak izan duten erantzun positiboa, aldaketa kualitatiboa eman dela erakusten duelako.

Aurten, Diputazioaren eta "La Caixa" fundazioaren laguntzarekin, San Xosepe elkarteak informatika gela bat jarriko du martxan, 10 ordenadoreekin, eta bertan oinarritako informatika eta Internet ikasteko aukera izango dugu, Bergarako jubilatutako guztiendako antolatutako diren ikastaroen bidez. Gure ustez, nagusiendako eskaintzak eguneratzeko urrats oso interesgarria izan daiteke.

"San Xosepe jubilatuen elkarteak ere hobekuntza etengabea dauka bere helburuen artean, gure ustez, gizarte honetan aurrera egiten ez duenak atzera egiten duelako"

Informatika ikasteko kurtsoek gero eta interes handiagoa pizten dute jubilatuen artean, eta elkarteak pentsatu du une egokia dela teknika berri horri diogun beldurra kentzen hasteko; bestaldekik ikusten dugulako biloben artean eta eskola munduan gero eta erabiliagoak izango diren hizkuntza eta baliabide berezi batzuk ezagutzeko aukera emango digula, eta horrela elkarrekin ikasteko ateak zabalduko dizkigula.

Esaten denez, ikasteko interesa galtzen denean hasten da pertsona zahartzen. Hortaz, gauza berriak ikasten jarraitu beharra daukagu, gure burua zabalik eta sasoiaren izan dezagun.

Informatika gela martxan jartzeak etapa berri bati irekiko dizkio ateak, eta horixe izango da bazkideen hurrengo asanblada orokorrean onartuko den hobekuntzarako helburuetako bat.

Aldi berean, beste helburu batzuk ere planteatuko dira, hala nola: hiruhilabeteko informazio-orri bat ateratzea, bazkideen elkarlanari esker egindakoa, orain dela 25 urte jubilatuen elkarte Bergaran sortu zenetik orain arteko historia batzeko asmoz.

Azken finean, helburuen bidez bazkideen parte hartzea bultzatu nahi da. Eta bukatzeko, bazkide guztiak gonbidatu nahi ditugu martxoaren 30ean, arratsaldeko 5etan San Xosepeko lokaletan egingo dugun urteko batzar orokorrera.<

barruan



A. Unzurrunzaga
Gipuzkoako SOS Arrazakeriakoa

"Euskal Herrian denetarikoa joerak daude: irekiak eta xenofoboak"

8.



V. Gallastegi
Bergarako alkatea

"la herritar denen babesa dute udal gobernua eta aurrekontuek"

17.



Fidela Gabilondo
Lorazalia

"Aittak afiziño haundixa zeukan, eta asko erakutsi zoztan berak loren inguruan"

29.

AGENDA ETA ZERBITZUAK

Farmaziak

Eguakitza 24:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Zapatua 25:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Domeka 26:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Astelehena 27:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Martitzena 28:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Eguaztena 29:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Eguena 30:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Ogia

Domeka 26: Mizpildi.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 17

2-10-33-41-43-44 (osag.21/itz.3)

Astelehena 20

12-20-22-25-30-36(osag.37/itz.7)

Martitzena 21

4-5-16-17-45-49 (osag.21/itz.1)

Eguaztena 22

9-15-18-26-43-49 (osag.1/itz.6)

PRIMITIVA

Zapatua 18

4-9-14-25-26-39 (osag.30/itz.2)

Domeka 19 Saritzarra

4-18-20-27-45-48 (osag.16/itz.2)

ONCE

Eguakitza 17: 71.623 (040 seriea)

Domeka 19: 24.308 (004 seriea)


Astelehena 20: 69.021

Martitzena 21: 46.964

Eguaztena 22: 14.126


ordu aldaketa

Domeka gauean, **02:00etan**, ordubete aurreratu beharko dira ordulariak: **03:00ak** izango dira. Erne ibili!




Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Zapatua 25

Tarteka lainotuta egongo da zerua eta euria egingo du. Temperatura freskoa. Elurra goietan. Hegomendebaldeko haizea indar handirik gabe.



Domeka 26

Zeru estalia; euri zaparradak. Elurra 1.200 metrotik gora. Temperaturak behera egingo du. Haizea, mendebaldetik al-dika gogor samar.

Ilargiaren aldiak



Ilbehera: martxoak 28



Ilberri: apirilak 4




Ilgora: apirilak 11




Ilbete: apirilak 18

Eguzkia

Domeka, martxoak 26



Sortu: 07:10



Gorde: 19:35

Temperaturak eta euria Bergaran

Elosu: Joxean Azkarate
San Juan: Luis Mari Agirre

	Elosu			San Juan		
	max. °C	min. °C	euria l/m ²	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Eguena 16	9	2	-	13	1	-
Eguakitza 17	9	1,5	-	13	1	-
Zapatua 18	7	4	-	12	9	-
Domeka 19	8	3,5	1	10	8	0,7
Astelehena 20	8	1,5	-	14	-1	-
Martitzena 21	12	6	-	16	2	-
Eguaztena 22	11,5	8,5	-	16	10	0,2

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Ipurterre

1. Tomate erreusei esaten zaie.
-Tomate asko dago, baiña geixenak ipurterriak.

2. Zazpikia, jenio zitalekoa.
- Zitalaua ta ipurterriaua da ezta kikk ze baiña.



JOSU OKINA

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiaik	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Bergarako udaltzaingoa	943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa	943 76 62 46
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitalea	943 03 53 00
Mendaroko ospitalea	943 03 28 00
Zumarragako ospitalea	943 03 50 00
Arantzazuko osp. (Donostia)	943 00 70 00
Santiago ospit. (Gasteiz)	945 00 76 00
Txorritxu osp. (Gasteiz)	945 00 70 00
Basurtoko ospitalea	94 400 60 00
Galdakaoko ospitalea	94 400 70 00
Gurutzetako ospitalea	94 600 60 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23
Odol emaleak	943 76 16 24
Itxaropenaren telefonoa	943 45 80 05

GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Bergarako udaletxea	943 77 91 00
Antzuolako udaletxea	943 76 62 46
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Kiroldegia	943 76 56 41
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

ABERIAK / ISTRIPUAK

Argindarra. Iberdrola	901 20 20 20
Grua. Ibai	608 67 68 21

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Idolaz	943 76 65 08
Jubilatuena Etxea. Bergara	943 76 21 40
Antzuolako jubilatuena elk.	943 76 62 71
Postetxea	943 76 26 85
Bedelkar	943 76 04 68
Akulu AEK	943 76 05 18
Udal euskaltegia	943 76 44 53
Bergarako notaritza	943 76 10 73

zorion agurrak



Mikel Diaz
29an 8 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak,
Jon eta Maria.



Oihana Astigarraga
25ean 8 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Iñaki Goenaga
27an 13 urte.
Urte askotarako!
Arreba.




Nerea Madariaga
26an 39 urte.
Urte askotarako!
Maite zaituztenak.



Jesus Izueta
26an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Erik eta Amaia.



Sara Iturbe
27an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Jose Yera
28an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Elisabeth Gallardo
27an 15 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Idoia Narvaez
26an 11 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta anaia.



Amaia San Torcuato
28an 7 urte. Zorionak eta muxu bat!
Maider, ama eta aita.



Julen Irizar
26an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Marina Urriolabeitia
25ean 8 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.

URTEURRENA

Justo Lizarralde Ezkibel

Lehen urteurreneko meza domekan, martxoak 26, goizeko 11:30etan, Antzuolako parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Faustino Laskurain Askasibar

Lehen urteurreneko meza domekan, martxoak 26, goizeko 10:30etan, Uberako San Pablo elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

hildakoak

BERGARA
Pilar Belategi Agirreolea
Martxoak 18, 84 urte

jaiotakoak

BERGARA
Aitor Garitano Agirreolea
Martxoak 8
Iker Nogueiras Crespo
Martxoak 8
Naiara de Dios' Cabo
Martxoak 16
Olatz Olañeta Gallastegi
Martxoak 17
ANTZUOLA
UXUE Iparragirre Larrañaga
Martxoak 12

Hurrengo alean,

martxoaren 31 eta apirilaren 6a

bitartekoen zorion agurrak argitaratuko ditugu.

autobusak

Bergara-Antzuola. Lanegunak: 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 15:00, 17:00, 18:00, 20:30. Zapatuak: 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30. Domeka eta jaieg.: 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

Antzuola-Bergara. Lanegunak: 08:30, 09:40, 12:05, 16:40, 17:15, 18:00, 19:35, 20:40. Zapatuak: 08:30, 12:05, 18:00, 19:35, 20:40. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 17:55, 18:35, 20:30, 22:05.

Bergara-Arrasate-Eskoriatza. Lanegunak: 07:20, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*. Zapatuak: 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05*, 21:35*. (*Arrasateraino)

Bergara-Gasteiz. Lanegunak: 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15. Zapatuak: 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.

Gasteiz-Bergara. Lanegunak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Zapatuak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

Arrasate-Bergara. Lanegunak: 05:50, 06:30, 07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Zapatuak: 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Domeka eta jaiegunak: 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

Bergara-Oñati. Lanegunak: 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. Zapatuak: 20:45. Domeka eta jaieg.: ez dago zerbitzurik.

Oñati-Bergara. Lanegunak: 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.

Bergara-Eibar. Lanegunak: 06:05, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Zapatuak: 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Domeka eta jaiegunak: 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

Eibar-Bergara. Lanegunak: 06:15, 06:50, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Zapatuak: 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Domeka eta jaiegunak: 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.

Bergara-Donostia (Autopistatik). Lanegunak: 06:45, 08:35, 10:35, 13:35, 14:35, 15:35, 17:35, 19:35. Zapatuak: 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. Domeka eta jaieg.: 10:05, 19:35.

Bergara-Donostia (Tolosatik). Lanegunak: 09:00, 18:00. Zapatuak: 09:00, 18:00. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

Donostia-Bergara (Autopistatik). Lanegunak: 06:15, 07:15, 08:15, 12:30, 13:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. Zapatuak: 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. Domeka eta jaieg.: 18:00, 20:45.

Donostia-Bergara (Tolosatik). Lanegunak: 07:00, 16:30. Zapatuak: 07:00, 16:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 19:00.

Bergara-Bilbo. Lanegunak: 06:30, 08:40, 14:30, 18:10. Zapatuak: 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. Domeka eta jaieg.: 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

Bilbo-Bergara. Lanegunak: 08:00, 12:30, 17:00, 20:00. Zapatuak: 08:00, 17:00, 20:00. Domeka eta jaiegunak: 09:00, 12:30, 17:00, 19:30, 21:00.

ANTZERKIA

► **Eibarko XXIII antzerki jardunaldiak**: gaur, eguakitza, "8 olivettis poeticos"; astelehenean "Un poco de Fo no hace daño"; martitzenean, "La ciudad sitiada" eta eguaztenean, "Calisto, historia de un personaje". Emanaldi guztiak 20:30etan Unibertsitate Laboralean.

► **"Dama eta Kardinala"** gaur, eguakitza, 22:30etan Elorriko Arriola aretoan.

MUSIKA

► **Go-Jam**. Gaur, eguakitza, **The Peepshows**, **Naun eta Purpura** 22:00etan. Domekan **Ibon Serrano eta David eta Maribel bikotea** 21:30etan.

► **Ange Duhalde** gaur, eguakitza, 22:00etan Antzuolako zine aretoan.

► **Debagoieneko eskola arteko abesbatzen topaketa** bihar, zapatua, 11:30etan eta 17:00etan Arrasateko Amaia antzokian.

► **Bergarako Musika Eskolako ikasleen kontzertua** hilaren 31n, 19:30etan Elgoibarreko zine aretoan.

ERAKUSKETAK

► **Azur-en** argazki etilikoak Go-Jam aretoan.

ERAKUSKETA

Mugen gagnetik

- Kultur Etxean
- Apirilaren 2ra arte. Astebarruan: 18:00-21:00, zapatu eta jaiegunetan: 12:00-14:00/18:00-20:00

"Mugen gagnetik" gobernuz kanpoko erakundearen "Iximulew, artoaren herria" izenburuko erakusketan, Guatemalako maya kulturari buruzko informazioa jasotzeko aukera dago, panelak, jantziak, musika edota bideo bati esker. "Mugen gagnetik" erakunde duela 6 urte sortu zen. Kote Urbietak taldeko ordezkariaren hitzetan, "gaur egun, beste lan batzuen artean, Rigoberta Menchu fundazioarekin elkarlanean ari gara zenbait proiektu aurrera ateratzeko, eta erakusketa honen helburu nagusia maya kultura ezagutzera ematea litzateke. Kristo aurretiko 2000 urtetik hona mayek izan duten ibilbideari errepaso eman nahi izan dio. Kontuan izan oso kultura aberasgarria izan dela mayena; besteak beste, sistema numerikoa, maya egutegia, pilota jokoa eta izadia eta gizakiaren arteko erlazioa landu zituzten".

Esan bezala, "artoaren herria" izenburua eman diote erakusketari; "artoak berebiziko garrantzia du beraien kulturaren oigia bezalakoa da artoa eurentzat, eta zela gertatzen duten erakutsi nahi izan dugu". Era berean, mayen hizkuntzei buruzko mapa bat ere ikusgai dago. Guatemalako indijenen artean 20tik gora hizkuntza bereizten dira. Kote Urbietak adierazi digunez, "erakusketa honi ikuspegi positibo bat eman nahi izan dio, pobrezia, gosea eta garapen arazoetan zentratu beharrean. Azken batean mayengandik gauza asko ikasteko dugu eta, zoritxarrez, oraindik ere nahiko ezezaguna da euren kultura". Datorren astean zehar ikastetxei zuzendutako bisita gidatuak antolatuko dira goizez.



Guatemalari buruzko 21 panel jarri dira Kultur Etxeko erakusketan.

► **Ainara Leteren** argazkiak Nahikarin.

► **Daniel Laskurainen** margoak Zarauzko Torre Luzea aretoan, apirilaren 9ra arte.

► **Pello Alberdiren** margoak Iruñeako Molmar galerian.

LEHIAKETAK

► **Bergarako XV. Literatur Lehiaketa**. Bergaran jaio, bizi edota lan egiten duen edozeinek har dezake parte. Lanak euskaraz idatzita izan beharko dira eta adinaren arabera bost

talde bereiztuko dira. Lanak entregatzeko epea maiatzaren 2ra arte zabalik. 943 77 91 66.

IKASTAROAK

► **"Industri prozezu elektrikoaren automatista"** ikastaroa,

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

AZPEITXI

Aranerrek 13 behea ☎ 943 76 55 00

Jatetxea

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

apirilaren 3tik maiatzaren 28ra, 18 urtetik gorako langabetuei zuzenduta. Informazio gehiago martitzenean, hilak 28, 12etan Miguel Altunako aretoan.

DEIAK

▶ **Koldo Zuazoren "Deba ibarreko euseria"** liburua- ren aurkezpena gaur, eguakitzan, 19:00etan Udaletxeko Pleno aretoan.

▶ **Aizepe** elkartearen ohizko bilkura bihar, zapatua, 17:30etan.

▶ **Kapirixok antolatuta**, bihar, zapatua, Zuberoako hainbat herriska eta toki interesgarri ezagutzeko txangoa izango da. Gauda Mauleko hotel batean igaro eta domekan Urdiñarben maskarada bat ikustera joango dira. Argibideak: 943 76 90 33/ 71 63 23.

▶ **Gaszte lokalaren aldeko mugimenduak** ostiralero, 19:00etan, Miguel Altuna institutuko edifizio zaharrean egiten den bileran parte hartzeko dei egiten die herriko gazteei.

▶ **San Joxepe** elkartearen batzar orokorra eguenean, hilak 30, 17:00etan elkartean bertan.

▶ **Hitzaldia. Luis Irizar** sukaldariak "Sukaldean ondo aritzeko teknikak" izenburuko hitzaldia eskainiko du eguenean, hilak 30, 19:30etan Gure Ametsa elkartean.

▶ **Udaleko Gizarte Zerbitzuak**, herriko ikastetxeekin batera antolatutako jardunaldiak. "Seme-alaba gaztetxeekin komunikazioa" izenburupean, 12 eta 16 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduta, martitzenean, hilak 28, eta eguenean, hilak 30, hitzaldiak izango dira, Carmen Vicioso psikologo klinikoa eta Maria Angeles Becerro sendagilearen eskutik, 18:30etan Kultur Etxean.

▶ **"Demokrazia Euskal Herriarentzat"** lelopean, euskal presoan aldeko manifestazioa Baionan bihar, hilak 25. Txartelak Pol-Polen eta Arranon.

▶ **Xipizarok** udaleku irekiatarako begiraleen izen-ematea martxoaren 27tik apirilaren 7ra bitartean zabalik dagoela jakin arazten du. 943 76 23 76.

▶ **Bergarako Gaszte Informazio Guneak** jakinarazi duenez, ikasle, irakasle eta nazioarteko gaszte txartelak eskuratzeko aukera dago Kultur Etxeko bulegoan. Argibide gehiago Gaszte Informazio Gunean eskura daiteke eguen eta eguakitz arratsaldetan eta zapatu goizetan. Telefonoa: 943 77 91 57.

JAIK

▶ **Elizamendiko Andra Mari Maingoa**, Angiozarren, bihar, hilak 25. Arratsaldeko 6etan umeen bedeinkapena egingo da.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

El sexto sentido

Eguakitzan: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

Asfalto

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

El talento de Mr. Ripley

Eguakitzan: 21:30.
Zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

Toy story 2

Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00.

ARRASATE. Amaia

La manzana

Eguena, zine-kluba: 21:30.

EIBAR. Unzaga

El sexto sentido

Eguakitzan: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Man on the moon

Eguakitzan: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

OÑATI. Santana

La playa

Eguakitzan: 22:30.
Zapatua eta domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Ghost dog

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ELORRIO. Arriola

El sexto sentido

Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

A cielo abierto

Eguena, zine-kluba: 20:00.

EL SEXTO SENTIDO

Zuzendaria: Night Shyamalan.

Aktoreak: Bruce Willis, Haley Joel Osment, Toni Collette.
≥13 urte

Haley Joel Osment gaztetxo Oscarretarako izendatu dute filme honetan egindako lanagatik. *Cole* (Osment bera) gertakari paranormalez obsesio-naturik bizi da eta *Malcolm Crowe* (Bruce Willis) haurren psikologoarengana joko du laguntza eske. *Crowe* dokto-rea *Cole* gaztearen fantasiak argitzen saiatu beharko da, ustekabeko ondorioekin...

ASFALTO

Zuzendaria: Daniel Calparsoro.

Aktoreak: Najwa Nimri, Juan Diego Botto, Gustavo Salmeron.
≥18 urte

Calparsoro donostiarraren azken lan honetan, *Lucia* (Najwa Nimri) eta *Chino* (Gustavo Salmeron) eta *Charly* (Juan Diego Botto) bere lagunminen arteko amodiozko istorioa kontatzen zaigu. Hirurek lan egoera larriari eta beste hainbat zailtasuni aurre egin beharko diete elkarrekin...



BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale 6 Tf.: 943 76 13 29



Matxiategi
Elektragintza
S.L.

ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA

Zurradero 8, behea. 943 76 19 94.

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrial

Errekalede auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

Joan zen martitzenean, martxoak 21, Arrazakeria eta Xenofobiaren aurkako Nazioarteko Eguna izan zen. Hori dela eta, Agustin Unzurrunzaga bergararrak hainbat gauza kontatu dizkigu Atzeritartasun legea zein beste gai batzuen inguruan.

G. Kezkatuta dago SOS Arrazakeria Europako eskuineko alderdiak berrindartzen ari direlako. Zer ekar diezaike etorkinei eskuinaren indartze honek?

E. Etorkinekiko xenofobia, jarrera autoritarioak eta diskriminazioa areagotzea.

G. Atzeritartasun Legeak zein onura ekarri du?

E. Ez du onura handirik ekarri. Edozein kasutan, heldabide batzuek iragarritakoa baino askoz gutxiago. Egia da arlo batzuetan aurrerapen batzuk badaudela, batez ere egonkortasun handia duten etorkinentzat, eskubideen eremua zabaldu egiten duelako. Baina, paperik gabekoan egoerak lehen bezain tamalgarria jarraitzen du izaten, "Centros de Internamiento" delakoen, etorkinentzat kartzela bereziak hain zuzen, lehen bezala darraite eta, orokorrean, jendea kanporatzeko sistema osoak.

G. PPK Atzeritartasun Legea aldatuko omen du.

E. Horrela da. Abenduan Madrilgo parlamentuan legea onartu bezain pronto, PPKo bozeramaleak argi eta garbi esan zuen hauteskundeak irabazten bazituzten legea aldatuko zutela. Hauteskunde kanpainan zehar gauza bera esan dute. Eta hauteskundeak irabazi ondoren, publikoki plazaratu duten aurreneko gauza izan da.

G. Baina aldaketak zein izango dira?

AGUSTIN UNZURRUNZAGA
Gipuzkoako SOS Arrazakeriako kidea

"Euskal Herrian denetariko jarrerak daude: irekiak eta xenofoboak"



Unzurrunzaga komunikabide askotan jardun du egunotan.

ARRASATE PRESS

E. Ba, seguru asko, Senatuan aurkeztutako 105 emendakinen ildotik, hiru arlo ikutuz: bat, sartzeko sistema, hau da, bisadoaren ukapenak ez arrazoitu beharra. Bi, egoera ez-erregularran dauden etorkinen eskubideak, legeak onartzen dizkieten eskubideak pikutara bidaliz. Hiru, kanporatze sistema sendotu,

"Gaur egun jende gutxi dago jarrera irekiak edukitzeko gertu, migrazio berriek suposatzen duten erronkari aurre egiteko gertu"

batez ere, etorkinak atxilotzeko aukerak ugarituz.

G. Euskaldunok zein jarrera dugu etorkinekin?

E. Gaur egun etorkin ezkomunitarioen kopurua ez da handia Hego Euskal Herria. Hala ere, jendearekiko harremanetan denetarik ikusten dugu, jarrera irekiak eta jarrera xenofoboak; jarrera solidarioak eta aurreiritiz jositakoak. Dena den, gaur egun etorkinen arazo nagusia ez da jendea, administrazioa baizik. Kontuan hartu behar da etorkin hauek administrazioarekin duten harremanen %95 Barne ministerioarekin egiten direla.

Euskaldunok aldamenekoan antz handia dugu. Gutxiengo bat dago gai honekin kezkatuta, jarrera irekiak edukitzeko gertu, harremanak sendotzeko gertu, migrazio berriek suposatzen duten erronkari aurre egiteko gertu.

G. Administrazioa aipatu duzu. Nola jarduten du euskal administrazioak?

E. Gutxi gora-behera pase torero bat eginez. Egia da atzeritartasunari buruzko kompetentziarik ez daukala, baina badu etorkinen bitzta osatzen duten hainbat arlotan. Eta hor, itsu, mutu eta gor ikusten dugu Jaurlaritza.

G. Aldarrikapen zehatzak adierazi zenituzten aseturuko manifestazioan.

E. Aurten Gipuzkoari dagokionez, bi aldarrikapen zehatz ditugu: bata asilo politikari buruz eta bestea etorkinekiko abegi politikari buruz, integrazio sozial eta politikoa bultzatzeko eskubideen berdintasunean oinarrituz. Gizarte honetan bizi garen pertsona guztiok osatzen dugu gizartea, eta onartezina deritzogu batzuk diskriminatuta edo lege berezien menpean egoteari.

Utzikeriagatik, Santa Katalina ermita erortzen hasi da

Behin-behineko kalifikazioa du ondareak eta jabetza ez dago erregistratuta

Santa Katalina ermitaren zati handi bat behe-erorri zen martxoaren 7an. XV. mendeko basiliza hau Askarruntz auzoan dago, eta bere balio historikoa handia da, batez ere, duen zurezko sabaiagatik. Zer esan ugari sortu da egunotan ermitarekin gertatuko denaren inguruan.

Martxoaren 7ko erorketan, absidea eta eskuma aldeko horma erori dira, eta honekin batera, basiliza horren baliotsua egiten duen zurezko zerua.

Erorketarekin batera, Kapirixo, Debagoieneko Kultur ondarea babesteko elkartearen salaketa publikoa ere etorri da. Kapirixok esandakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bergarako udalak utzikeriaz jardun dute. Kapirixok ez du ulertzen "Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak horrenbeste urtetan ondareen behin-behineko zerrendan edukitzea ermita", eta behin beti-



Hauxe da Santa Katalinak gaur duen itxura.

ko kalifikazioa eskatzen du, azken kalifikazio honek "erakundeak aktuatzera behartzen baititu".

ERANTZUKIZUNA

Ondarea babesteko elkartearen arabera, Bergarako udalak ere badu erantzuki-

zunik. Izan ere, orain hamar urte Diputazioak zazpi milioi pezetako subentzioa eman zuen ermita konpontzeko, Bergarako udalak beste horrenbeste jartzeko baldintzarekin, baina orduan "udalak ez zuen ezer egin eta dirulaguntza bertan behera geratu zen, nahiz eta ondo zekien ermitak zelako garrantzia duen" Kapirixoko kideek azaldutakoaren arabera.

Honi erantzunez, Victoriano Gallastegi alkateak, hamabost milioi pezeta haiekin ermita zutik mantendu baino ezin zela egin adierazi du eta hori baino birgaitze sakonagoa behar zuela.

Erantzukizunak erantzukizun, ermitaren geroa begiratu beharra dago, baina honetan ere bada arazorik, ermitaren jabetza ez baitago erregistratuta. Honen aurrean, udaletik esandakoaren arabera, Foru Aldundira zein Eusko Jaurlaritzara arazoa konpontzeko neurriak har ditzatela eskatu da udaletik.



TXEMA CANARIANA

XV. mende amaiera eta XVI. mende hasierako altxorra

Santa Katalina XV. mende amaiera eta XVI. mende hasierako basiliza dugu. Beranduko gotiko estiloko basiliza honen ezaugarriak San Kristobal ermitaren oso antzekoak dira, nahiz eta arziaren zurajea harena baino oparagoa eta landuagoa den. Bergarako ermita guztien artean interesgarriena da Kapirixoren esanetan. Bere hormen arkitekturaren aztarnek eta baserri giroko ermita batek bere burua jartzeko erabiltzen dituen zurezko sabai ikusgarriek herriko beste ermita gehienetatik ezberdintzen dute.

Aste honetan hasi dira Santa Anako estalkia konpontzen

Hasi dira dagoeneko Santa Ana ermita konpontzeko lanak. Asteartean, ermita ingurua hesitu eta portikoko estalkia bota zuten, eta asteazkenean, ermitaren estalki berriarekin hasi ziren.

Hauxe da, Santa Ana ermita berrizteko lanetan egingo den lehenengo urratsa. Portiko zein ermitako estalkiak berriztu ostean, paretak egokitzeari ekingo zaio, eta azkenik, barrutik ere berriztuko da berpizkunde garaiko ermita hau. Orotara, bederatzi milioi pezetako aurrekontua dute lan hauek.

Santa Ana ermitarekin batera, parkea bera ere txukunduko da bigarren fase



Estalkia konpondu ondoren, hormak txukuntzeari ekingo diote.

batean. Bigarren fase honetan, parkearen ordenazioa egingo da, txukundu eta egokitzeko. Horrez gain, hirugarren fase bat ere aurrei-

kusi du udalak. Izan ere, Kultur Etxearen ondoan dagoen eraikuntza, Errota, jasotze eta berrizteko asmoa ere badu.

Mizpirualdeko ezkien lekuan zedroa eta haritza

Mizpirualde egoitzaren parean zeuden lau ezki bota zituzten hilaren 20an udaleko langileek. Barrutik ustelduta zeuden orain urte batzuk gaizki kimatzeagatik. Denborarekin galtzen joan dira eta udaleko hainbat tekniko zein Mendiak Bizirik-eko ki-deak kontsultatu ondoren, zuhaitzak botatzea erabaki zen. Udalak sorzitezkeen arriskuak ekidin nahi izan ditu, izan ere, zuhaitzok ez ezizuten indar handirik eta garai honetan jasotzen den haizeak botatzeko arriskua zegoen. Hauen tokian zedro bat eta haritz bat sartuko dira.

Ehk dio abstentzioa 20 puntu igotzea garrantzitsua izan dela



Hauteskundeetako emaitzen balorazioa egin zuen atzo, osteguna, prentsaurrean Euskal Herritarrok taldeak. 1996. urteko hauteskunde orokorrekin alderatuz, abstentzioak 20 puntu egin du gora herrian eta hau oso garrantzitsutat jo du EHk, "batez ere kontuan izanda jarri dizkiguten oztopoak". Garrantzitsua, beraz, igoera, baina ez dute "arrakasta gisa ikusten" Jesus Mari Garitanok adierazitakoaren arabera.

Gainontzeko alderdien emaitzei dagokienez, EAren kasuan "porrota" izan duela adierazi zuten. EAJk, bestalde, hirurehun boto gehiago lortu ditu eta "EA zein geure boto batzuk" eskuratu ahal izan dituela gehitu zuten.

Ezker Batuaren kasuan, honek ere "porrot izugarria" lortu duela gaineratu zuten eta PP eta PSOE alderdiei dagokienez, garrantziarik ematen ez die-tela eta sozialistek galdutako botoak popularrengana joan direla.

PISZINETAKO TABERNA

Bokadiloak
Pintxoak
Kazuelitak

Boni Laskurain z/g
Tf. 943 76 53 55



Sukaldeak.
Horma armairuak.
Neurrira egindako
altzariak.
Ateak eta leihoak.
Arozlanak.

BERGARA ☎ 943 76 58 86

BERGARA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
☎ 943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

Isuna eta espediente itxiera bi laguni Osintxuko jaietan txahala hiltzeagatik

Osintxuko Kofraixetan txekorraren sakrifizio publikoak hainbat zeresan sortu zuen abuztuaren 28an zein hurrengo egunetan. ANPBA animalien aldeko erakundeak Rafael Zabaleta eta Rosario Baquerin salatu zituen animalioek babesteko indarrean dagoen legedia urratzeagatik: Rafael Zabaleta txekorra hiltzeagatik eta Rosario Baquerin txekorra hiltzen laguntzeagatik.

Honela, udalbatzak asteleheneko plenoan erabakitakoaren arabera, Rosario Baquerinen zigor-espedientea artxibatu egin da eta Rafael Zabaletari 58.058 pezetako isuna ezarri zaio.

Animalien aldeko erakundeak esandakoaren ara-



Ikusteko dago datorren urteko Kofraixetan txahala hilko ote den. ARTXIBOA

bera, Rosario Baquerinek legea urratu zuen Kofraixetan txahala hiltzen laguntzeagatik, hau da, sokatik helduta plaza erdira eramateagatik. Udaltzainburuak au-

rrerz ohartarazi zion hori legearen aurkakoa zela. Baquerinek bere aldetik, Osintxun ohitura zaharra dela txahala hil eta ondoren haragia eta salda dohainik ba-

natzea, animaliarri ez zitzaio- la tratu txarrik eman eta laguntzaile gisa, partehartze zuzenik gabe jardun zuela alegatu zuen. Gauzak honela, Baquerinen zigor-espedientea artxibatzea onartu zuen udalbatzak.

Rafael Zabaletak, legea kalean txahala hiltzean urratu zuen, nahiz eta aurrez udaltzainburuak, Zabaleta ere ohartarazi legea urratzera zihoala. Zabaletak hau alegatu zuen: Osintxun ohitura zaharra izateaz gain, animaliarri ez zitzaio- la tratu txarrik eman eta irregularitate bakarria beharrezko baimena ez eskatzea izan zela.

Gauzak honela, 58.058 pezetako isuna ezarri zaio Rafael Zabaletari.

Dagoeneko inauguratu dute Bergarako Industrialdea

Atzo, eguena, inauguratu zen Industrialdea. Ekitaldian Iñaki Telletxea, Eusko Jaurlaritzako Industria Politikarako sailburuordea, Jose Ramon Beloki, Gipuzkoako Ekonomia saileko diputatua, Anton Zubiaurre, SPILUR, Lurzoru eta Eraikuntza Industrialen Sustapenerako Sozietateko Zu-

zendari orokorra eta Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea izan ziren, politika, gizarte eta ekonomia arloko gonbidatuekin batera.

Bi pabilioi bisitatu ondoren, ohorezko aureskua egin zuten Xamatzeko dantzariak eta ostean zinta moztetari ekin zioten argazkian ikus daitekeen bezala.



Beloki, Gallastegi, Telletxea eta Zubiaurre egueneko inaugurazio ekitaldian.

LONBIDE
OINETAKOAK



Bidekurutzeta 5

BERGARA

☎ 943 76 10 57

IBARGYREN PENTSVAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

Berrigara

403 zenbakia.
2000ko martxoaren 24a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte


Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetza: Itziar Kortabarria.
Testuen zuzenketak: Alex Labaien, Mariipi Laskurain, Estepan Plazaola.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate, M. Angel Elkorobereziabar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Usoa Mendikute, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre, Antxon Agirre Sorondo, Joxean Azkarate, Juan Martin Elxepuru, Josu Okina.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga, Oñati).

Azaleko argazkia: Berrigara.

Tirada: 5.300 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauek laguntza:



gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara.
Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

OFIZIALTASUN ERREAL ETA OSOA ORAIN!

Euskararen egoeraren berri ematekotan egin dugu idatzi hau. Jakina da (gehienontzat) euskarak jasaten duen menderakuntza egoera salagarria dela. Egoera honen adibide gordinenetakoak Ipar Euskal Herrian (euskara ez da hizkuntza bezala kontsideratua) eta Nafarroan (zatiirik handiengan ez da ofiziala) aurki litezke. EAEn, berriz, espainolarekin batera koofiziala izanik ere hau errealitatean ez da bermatzen.

Adibide garbienetakoa justizi administrazioan euskararen presentzia hutsala da. Epaitegietak oharrak, epaiketak, epaileak, etab. guztiak espainiar elebakarrak dira (salbuespenak salbuespen). Euskal Herriko eta euskalduna den justizi administrazioa behar dugu, baina bi estatuetako konstituzioek ez digute uzten.

Gainera, honen aurrean protesta egin duten hainbat euskaltzale eta abokatu epaituak izan dira, ondoren, batzuei isunak jarri dizkiete eta beste batzuek kartzelara joan beharko dute (gazte-eraz eginiko epaiketa bat mozteagatik).

Hala ere, ez dugu etsiko Euskal Herri euskalduna lortu arte, horretarako, gure herri osorako ofizialtasun erreal eta osoaren alde lan eginez. Ildo beretik, nazio mailako martxa bat antolatu dugu, apirilaren 15ean hasiko dena. Era berean, herri mailan ere hainbat ekimen burutuko dira.

Bukatzeke, euskararen aldeko ekimenetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu eta gogoratu: "euskararen alde defentsarik onena erabilpena".

Bergarako
Euskal Herrian
Euskaraz

Zuzenketa

EAJk 1.385 boto jaso zituen Bergarako erdialdean eta ez 385, joan zen asteko alean, akats bategatik, argitaratu genuen moduan. Guztira, EAJk 2.829 boto lortu zituen herrian martxoaren 12ko hauteskunde orokorretan.

Berrigara

tira biraka unai azkarate



atrebentzia ezpada

Hondamendiren bat gertatzen danian ze pentzaten jatsu laguntzak bialtzia? Zeuk bialtzeko ohituraik badaukozu?**Jose Mari Arregi**

Laguntzia beti dago ondo. Batzutan parian tokatzen dia halakuak eta oso ondo pentzaten jat laguntzia. Emon izan dot borondatia.

**Lucia Martinez**

Oso ondo pentzaten jat ahal dabenak laguntzak bialtzia, baiña nik neuk eziñezkua dot jende horri laguntzia.

**Ana M. Etxebarriarteun**

Jende horrekin lehenago akordau bihar da, baiña bialdu izan dot laguntzia, eta badaukat umeren bat apadrinatzeke gogua be.

**Kristina Manobel**

Ondo pentzaten jat laguntzia, baiña jakinda dirua nora doian. Emon izan dot zeozer, baiña nere lanakin ezin dot askorik emon.

**Patxi Vallejo**

Askotan dirua baiño biharrezkuagua izaten da erropia, botikak eta lagun egitteko prest dagon jendia. Emon izan dittut laguntzak.

**Juan Cruz Bengoa**

Askotan oso samur lagatzen dogu. Egitten doguna baiño gehixago danok egin geinke. Nik neuk be sekula ez dot laguntzaik bialdu.

bai, esan!



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.
Identifikazioa beharrezkoa.

GAZTE INFORMAZIO GUNEKO PANELAK

J. Alberdik mezu bat utzi zigun astebukaeran BERRIGARAKO erantzungailuan. J. Alberdik Kultur Etxera, Gazteen informaziorako bulegora, jotzen du behin baino gehiagotan informazio bila. Hain zuzen ere, Kultur Etxeko sarreran gazteei zuzenduriko oposaketak, lehiaketak, lan eskaintzak eta bestelako ekitaldien inguruko informazioa jasotzeko aukera dago, baina J. Alberdiri ez zaio ondo iruditzen informazio guzti hori gazteleraz bakarrik eskaintzea. Izan ere, J. Alberdiren arabera, informazio gehiena gazteleraz dator eta Gazteen informaziorako bulegokoei sentsibilitate pittin bat izatea eskatu nahi die, hurrengo batean aipatutako informazioa euskaraz ere eskuratzeke aukera egon dadin.



Gozogintzan
aintzindari.

**Txorimalo lehiaketa**


Bergaran Erramu zapatuan,
apirilaren 15ean.

Sari bikainak!

Gehienez 8 partaide taldeko.
Hiru maila: 14 urtera artekoak,
15-60 urte bitartekoak eta 60 urtetik gorakoak



Anima zaitez!
Informazioa:
Kartzela zaharra
Tf. 943 76 08 19

**Kizkur**

Ileapaindegia
Estetika
Solariuma

Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

adituen esanetan

Miopiarik ez laserrarekin

Laserraren eta kirurgiaren arteko konbinazioari esker, dioptrien arazoa emaitza bikainekin gainditu daiteke gaur egun. Hasiere batean Laser excimer izeneko teknika zen gehien erabiltzen zena. Laserra medikuntzan asko erabiltzen da, eta dauzkan abantailarik aipagarrienak guztia konputerizatuta dagoela (begiaren parametro guztiak zehatz neurtzeko aukera daukagu) eta, molekular apurtzean, laserrak inolako orbainik ez duela uzten lirateke. Diabetikoen kasuan ere, retinako zainak apurtzen hasten direnean (retinopatia diabetikoa) laserra erabil daiteke. Abantaila ugari eskaintzen dituen arren, arriskuak ere baditu laserrak, infekzioak esate baterako. Begiko zentru bisuala asko izorratzen da. Argon laserra aplikatu beharra dago orduan, retina "soldatuta" moduan lagatzeko.

Excimer laserra begietan aplikatzerakoan, erreflexuak sortzen ziren



ION LARRAÑAGA

Optikoa

"Estatistiken arabera, 6-8 dioptria bitarteko kasuetan oso emaitza onak lortzen dira. Anestesia lokalarekin egiten den operazio oso azkarra da"

gauzez, begiaren azalean "zulo" moduko bat egiten baitzen dioptriak kornean kentzerakoan. Gaur, berriz, Lasik izeneko teknikari esker, korneako azala (epitelioa) bueltatu eta bertan aplikatzen da laserra, teknika hau askoz hobea delarik. Inguru handiagoan ematen da laserra eta erreflexuak eta horrelakoak ebitatzen dira. Estatistiken arabera, 6-8 dioptria bitarteko kasuetan oso emaitza onak lortzen dira. Operazio oso azkarra da eta anestesia lokalarekin egiten da. Komenigarria da miopia finkoa, estabilizatuta duten pertsonen kasuan egitea bakarrik, beraz gazteei eta ez zaie gomendatzen oraingoz behintzat horrelakorik egitea. Badira miopia arazoak nahiko berandu izaten dituzten pertsonak, 40 urtetik aurrera adibidez (ordenadoreekin lan egiten dutenek arrisku handiagoa dute). Kasuistikari dagokionez, ez daukagu datu asko, teknika nahiko berria delako.



Lasik izeneko teknikari esker miopia arazoak konpontzeko aukera dago gaur. ARTXIBOA

bergarako errotrak

LOIDI-BOLU



Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak 1929an ondorengo iragarria kaleratu zuen:

"Eustakio Loidi Bergarako bizilagunak adierazten du Bergarako udalerrian, Angiozar bailaran, Angiozar erreka urak erabiltzen dituela Loidi izeneko erroten indarra sortzeko eta erabilerara hori Herri-Uren Aprobetxamendu erregistroan inskribatzea nahi lukeela. Darabilen ur kopurua, bataz beste 21 litro segunduko da eta duen ur-jauzia 5,80 metrokoa.

Eta hau guztia jendeari jakinarazten zaio..."

1934an hasi zen lanean irineta-rako herri-errota gisa alta emanda, Felix Lazpiurren izenean, eta 1944tik 1963ra Lorentzo Etxeberria Lazpiurren izenean egon zen. 1963an utzi zion herri-errota izateari, ur-eskubidea ordaintzeari utzi zion urtean, alegia, baina, berez, 1952an utzi zion behin betiko ehotzeari. Lorentzo Etxeberria, 1906an jaioa, izan zen bertako azken erro-taria.

Angiozar erreka eskumatara zegoen eta bi turtuki zituen bat burdinazkoa eta bestea, gerora apurtu egin zena, harrizkoa. Batez ere, artoa eta garia ehotzen zuen eta %10eko laka kentzen zuen.

Kokapena: Bekoerrota baino 800 bat metro beherago.

Antxon Agirre Sorondo

Maite Aristegi Sagardoaren kofradiakide berria

Hernaniko Tolare Sagardoaren Kofradiak Maite Aristegi omendu zuen joan zen domekan. Maite Aristegirekin batera, **Yolanda Alzola, Modesto Lasa, Isaac Salaberria eta Juan Ignacio Querejeta** izango dira hemendik aurrera Hernaniko sagardoak izango dituen kofradiakideak. Zorionak denoi!



GARA



Orkestra Sinfonikoa Madrilerera

Bergarako Orkestra Sinfonikoak **Madrilgo Colmenar Viejo** herrian kontzertua eskainiko du **biar, zapatua**. Azaroan, **Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Orkestra** egon zen gure artean eta trukean Bergarakoa Madrilerera doa asteburua igarotzera. Kontzertu bakarra eskainiko du Bergarako Orkestra Sinfonikoak Colmenar Viejo herriko Nuestra Señora de la Asuncion elizan, eta bien bitartean, Madril ezagutzeko ere aprobeztatuko dute.

Nere Murgoitoren kartela Gazte Informazio Gunea iragartzeko

Nere Murgoitio 25 urteko bergararra izan da Gazte Informazio Gunea iragartzeko kartel lehiaketaren irabazlea. Nerek **50.000 pezetako saria** jasoko du. Bergaratik zortzi lan eta Lasartetik beste bat aurkeztu dira eta Murgoitorena iruditu zaio epaimahaiari informazio gunea iragartzeko egokiena. Nerek, diseinu grafikoa eta multimedia ikasi du, eta oso pozik azaldu da emaitzarekin: "ezusteko polita jaso dut. Lehiaketetara aurkeztean beti daukazu irabazteko itxaropena, baina inoiz ezin da jakin". Zorionak!



B e r g a r a k o OSASUN GIDA

- **ALBAITARIAK: ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaitari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 ■ **ANALISI KLINIKOAK: LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA: IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK: ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B.** 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **TRIPALDI Enrike.** Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOA: LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK: ARZAK Miren** (Reeducacion Postural Global). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 • **BASTERRETXE, Maria.** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ **HOMEOPATA: SUSANA GANUZA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **GINEKOLOGOA: SERRANO DOKTOREA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK: AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 15 74 • **AZPEITIA Irupe.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 73 43 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA: BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA: OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50 ■ **PODOLOGOAK: ALTUBE Edurne.**

Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

■ **PSIKIATRA: GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ekerra. 943 76 26 64

■ **PSIKOLOGOAK: PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa).

943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa), 943 76 30 76

Osasunez bizi izateko!

kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Marijo Deogracias **Maketazioa:** Iñaki Iturbe **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarría, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 55. zenbakia. 2000ko martxoaren 24a.

Idolaz Goienako bazkide egin da

Idolazek batzar orokor berezian hartu zuen erabakia

Martxoaren 9an egin zuen Idolazek batzar orokor berezia. Gaia bakarra zen: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibaren bazkide izan ala ez erabakitzea. Izan ere, Goienak datorren eguaitzean, martxoaren 31n, bere estatutuak legezkatuko ditu. Idolazekin batera, beste zortzi herrietako zortzi euskara elkarte egingo dute gauza bera.

Onartzen duzu Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatiba sortzea eta erakunde horretan parte hartzea baldintza egokietan? Onartzen duzu Idolazek Goienako kapital sozialera beharrezkoa den diru-ekarpina egitea? Hori etxek biak izan ziren Idolazeko bazkideek, batzar orokorrean, hartu beharreko erabakiak. Horrekin batera, Idolazek Goienaren izenean sinatu behar denean ordezkaria nor izango den ere erabaki zen.

Goiena informazioaren arloan, Debagoieneko herritarren eta entitateen komunikazio-beharrei ahalik eta zabalaren erantzungo dien enpresa da. Kooperatiba da eta bazkide nagusiak bailarako euskara elkarteak dira. Hori dela eta, euskara hutsean arituko da eta Idolazek hasierako inbertsio bat egin beharko du. Izan ere, Goienak hasiera batean, bailarako telebista batekin ekingo dio lanari. Gaur egungo Arrasate Telebista eta Aretxabaleta telebistaren azpiegiturak aprobetxatuko dira horretarako. Arrasate Telebistak dagoeneko hamar urte daramatza herri telebista bezala lanean eta Aretxabaletakoak, ia hiru. Hori dela eta, emisio zentroa Arrasaten egongo den arren, bailaran beste hiru zentro egongo



Hamabost lagun elkartu ziren Udaletxean, batzar orokorra egiteko.

dira: Oñatin, Aretxabaletan eta Bergaran. Eta azken hau da hain zuzen ere, Antzuolan gertatzen denaren berri jasotzeko ardura izango duena.

TELEBISTA LAISTER

Bergaran ziren hastekoak Goiena telebistarekin, baina azken orduko arazoak tarteko Gatzagak, Eskoriatzak, Aretxabaletak, Aramaiok eta Arrasatek emango diote hasiera GoiTBri. Mikel Irizar kazetari ezaguna da Goienako bateratzailea eta berak adierazi digunez, "maiatzean

hasi nahiko genuke emisioarekin. Oraindik zenbait gauza lotzeko dauden arren, Bergaran esaterako tekniko lanetan aritzeko probak egin genituen eta baita kazetari-aurkezle izateko ere".

Goiena telebistak dena den, papezko komunikabide bat ere izango du alboan. Herri komunikabideekin batera uztartu beharko den komunikabidea izango da. Hasiera batean aldizkaria izango da eta aurrera begira egunkaria ere izan daiteke. Horren adibide gisa martxoaren 13an, bailara guztian

■ ■ ■
GoiTB, Debagoieneko telebista,
maiatzerako martxan izango da
■ ■ ■

20.000 Goienkari banatu ziren, lantegi, egunkarietako kiosko eta abarretan. Hauteskundeen emaitzak jaso ziren bertan eta lehen aldiz, herri komunikabideek elkarrekin ateratzen duten lehenengo produktua ikusi ahal izan genuen.

UDALAREN LAGUNTZA

Antzuolako udalari, beste bailarako udal gutzietan bezala, laguntza eskatu zaio. Gure kasuan Idolazek egin dio udalari dirulaguntza eskaera. Izan ere, telebista martxan jartzeko hasierako inbertsioa egin behar da eta horregatik udalari laguntza eskatu zaio. Udalak momentuz begi onez ikusi du proiektua eta aurrekontuetan ere Goienari laguntza ematea aurreikusiko du.

Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzak bera ere, "oso interesaturik daude proiektuan". Horixe azaldu zuen Mikel Irizarrek, Idolazek batzar orokor berezian. Han azaldu-takoaren arabera "instituzioek euskaraz arituko den bailarako komunikazio zerbitzu hau oso positibotzat jo dute, izan ere, aurrera begira horrelako ekimen

gehiago sortzeko eredia sortuko da". Mikelek zioen bezala "behingoz bertso orijinala euskaraz izango da eta inor ez zaigu beste hizkuntza batean gurearen berri ematera etorriko, eta hori oso garrantzitsua da".

EUSKALTELEN AUKERA

Euskaltel enpresak herrietan kablea sartzeko asmoa dauka. Hori horrela izanik, gure etxeetara ehundaka telebista seinale ekarri ahal izango ditugu eta Teledonosti (Donostiako telebista) esaterako, gure etxeetan ikusi ahal izango dugu.

Goiena telebista kablea iritsi aurretik emititzen hasiko balitz, Euskaltelek bere kablearen eskaintzan sartuko luke GoITB ere. Modu honetan, Debagoieneko telebista Donostian zein Euskadiko beste edozein herritan ikusteko aukera egongo litzateke. Baina horretarako lehenik eta behin emititzen egon beharko luke telebistak.

ESKAITZA ZABALA

Goienak, telebista eta idatzizko komunikabideez gain, irratia eta telematika ere ez ditu baztertzen. "Komunikazioaren garaian egonik, beharrezkoa da Goiena teknologia berrien esparruan aritzea. Irratian esaterako era digitalean lan egingo genuke eta bide batez, ordenagailuz erabiltzeko beste komunikabide bat ere izango genuke. Dena dela, hori oraindik aztertzeko dago eta lehenasuna telebistak eta aldizkariak edo Goienkariak izango dute. Izan ere, herri komunikabideak eta Goienkaria nola

uztartuko diren ere erabakitzeko dago. Hori ikusteko udaberria garai ona da eta Goienak hilaren bukaeran bere estatu-tuak legezztatzen dituenean, aurrera egiteko moduan izango gara. Orduan, Idolazek 300.000 pezetako aurrekontua jarri beharko du Goiena Komunikazio Zerbitzuan eta hortik aurrera erabateko bazkide izango da, Debagoieneko beste euskara elkarrekin batera. ■

Goiena

Komunikazio Zerbitzuak

Herriko nesken futbol talde berria

Astelehenero eta ostiralero elkar-tzen dira Estalan. 15 eta 25 urte bitartean dute eta denak neska dira. Futbola atsegin dutela eta futbol talde bat eratu dute. Entrenatzaile lanetan David Diaz de Abetxuko bergararra dabil eta Arantzazu Kortabarria da laguntzailea.

Entrenamenduak arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara dira, baina egunak aldatzekotan ari dira, jende gehiagok jokatzeko aukera izan dezan.

Urrian Debagoieneko beste nesken taldeen aurka jokatu dute, bailarako txapelketan.

Beraz, badakizue, futboleko egitea atsegin baduzue, aukera bikaina daukazu iluntzetan Estalan!



Hogei bat neska ari dira futbol taldean.

AITZ-GARBI



taberna
jatetxea

Pintxoak eta kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51




Jose Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B. Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43

LEKU-BERRI MERENDEROA

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94

1.550 m² ditu eraikin berriak.

Dena gertu pabilioi berria inauguratzeko

Apirilaren 12an irekiko du eraikina Matzerrekak

Epeak bete egin dituzte eta apirilaren, aurreikusitako bezala, inauguratuko dute Matz Errekako pabilioi berria.

Orain dela bi aste hasi ziren bertan lan egiten, baina oraindik ekitaldi ofiziala egin nahi dute eta horretarako apirilaren 12a aukeratu dute. Mikel Agirrezabal kudeatzaileak esan digunez, Josu Jon Imaz, Roman Sodupe eta Antonio Cancelo gonbidatu dituzte, besteak beste. Izan ere, MCCko beste goi kargu batzuk ere jaso dute eta gonbidapena. Baina Matz Errekako langileak izango dira pabilioia inauguratzen lehenengoak. Eta hori apirilaren 8an izango da. Nahiz eta, batzuk dagoeneko lanean hasiak diren bertan, bai bulegoetan zein beheko lantokian.

Apirilaren 15ean, berriz, nahi duen edonork izango du aukera Matz Erreka bisitatzeko. Ateak zabalik izango dituzte

pabilioi berriaren 1.550 metro karratuak ikusteko.

Matz Errekak eraikin berriarekin ia 9.000 m²ko lurra dauka bere produkzioan aritzeko. Eraikin berrian automatismoen saila dago eta honela, orain arte lan arlo honek hartu duen tokia beste gauza batzuetarako erabiliko da.

KALITATE ZIURTAGIRIA

Matz Errekak QS-9000 kalitate ziurtagiria jaso berri du. Plastikoen sailari eman dio AENORrek ziurtagiria, zehaztasuneko, hain zuzen ere. Mikel Agirrezabalek azaldu digunez, Matz Errekak lan ona egin du zehaztasun handiko pieza teknikoetan eta azkenaldiko inbertsioak ere, sektore horretarako egin dira.

Autoetan eta etxeko tresna elektrikoetan erabiltzen dira gehien bat pieza hauek.

Okerrak zuzendu eta Antzuolako euskeran emon

1. Beste egunian zintz egin nitzan.

1.

2. Ni Mikelena gustatzen naiz.

2.

Izen-abizenak eta telefonua:



idolaz bertoko hizkeria
ANTZUOLA

Aurreko Kontuolako erantzun zuzenak:

1. Amama eta aittitta debalde jua dira Benidormera.

2. Ziburuetan ibilli zeinke.

Sarituak: Aste honetan, ez dugu jaso erantzun zuzenik.

Eskuman erantzunak idatzi ostian, moztu eta laga Antzuolako udal liburutegian.

DATORREN EGUAKITZA BAINO LEHEN.

Erantzun zuzenen artian 5.000 pezeta eta "Antzuolako hizkera" liburuen ale bat zozketatuko ditugu hamabostero.

Igor eta Txomin



Margoak orokorrean

ANTZUOLA
609 157 131

BERGARA
609 150 164



Euskal
sukaldaritza

Eguneko
menua

Kalebarren 7, ANTZUOLA Tf. 943 78 71 12

GOROSTI
Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA



Herri jolasak antolatu ez diren arren, izango da aukerarik jokorako.

Senidetze eguna

Aihertarrak Antzuolara etorriko dira datorren domekan, martxoak 26. Egun osoko egitaraua prestatu dute berriz ere, bi herrien arteko elkartasun eguna ospatzeko.

10:30etan iritsiko dira eta hamarretakoa egingo dute Olalde elkartearen. 11:30etan orain dela hilabete batzuk inauguratu zuten Antiguako errotara bisita egingo dute. Jakingo duzueenez, Florentino Lamarianok, Antiguako garai batean martxan egon zen errota berriz ere martxan jartzea lortu zuen.

Eguerdian, bazkariaren aurretik, Uzarragara bisita egingo dute. Izan ere, domekan Uzarragako txirrindulari lasterketa egingo da, goizeko 10:30etatik aurrera eta 13:00etan helmugara joango

dira Aiherrakoak. Bazkaria 14:30etan izango da jubilatuetan eta herriko abesbatzak ere parte hartuko du bazkaria alaitzen. Gainera abesbatzako kideek kanten letrak banatuko dituzte guztien artean abesteko.

ANJEREN KANTALDIA
Anje Duhaldek kontzertua eskainiko du gaur, eguakitzan, zinetokian. Sarrera 500 PTA izango da eta kontzertua 22:00etan hasiko da.

UZARRAGARA IGOERA
Domekan egingo da Uzarragako txirrindulari igoera. Irteera goizeko 11:30etan izango da (ordua aldatuta). Gazte mailako txirrindulari lasterketa izango da.

ARROLAREN IRTEERA
Apirilaren 2an Aralarrera abiatuko dira Arrolakoak. Izen ematea, martxoaren 28an izango da, 19:30etan, Arrolaren egoitzan.

LITERATUR LEHIAKETA
Laugarren urtez egingo da Patxiku Txerren Literatur lehiaketa. Herrian jaio, bizi edo lan egiten duen edonork hartu dezake parte eta adinaren arabera hiru mailatan banatuta egongo da. Lanak edozein literatur generotakoak izan daitezke eta apirilaren 26a baino lehen entregatu beharko dira.



BALZERS-ELAY BILBOKO AZOKAN

Bilboko Makina Erremintaren Nazioarteko azokan erakustokia jarri zuen Elay-Balzars enpresak. Hantxe egon ziren astebetez euren produktuak erakusten. Guk Juan Tomas Garitano harriatu genuen Balzers-Elayren eraskutokian, bertarutzen zirenei azalpenak ematen.

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Birgaitzeak • Fatxadak
Teilatutak • Sukalde eta bainu gelak
Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60 89

HARIZKI
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

Hirugarren legealdia du alkateztan; lehenago, bi legealditan izan da zinegotzi: Imanol Bolinaga alkate izan zenean eta Jose Luis Elkororekin, oposizioan. Legegintzaldi hau amaitzean 62 urte izango ditu, baina oraindik ez du erabaki jarraituko duen ala ez. Onartu berri diren udal aurrekontuen, gobernu formula berriaren, eta beste hainbat gairen inguruan egin digu berba.

Victoriano Gallastegi, Bergarako alkatea

“la herritar denen babesak daukate aurrekontuek”

Hirugarren legealdia duzu alkatetzan eta hiruretan gobernu formula ezberdinak ezagutu dituzu. Oraingoa berria da Bergaran. Orain arte zela joan dira gauzak?


E. Abertzaleon gobernuak da hau, eta orain arteko sei hilabeteotan oso lan ona egin da. Aurrekontuak osatzeko guztiok egin ditugu aportazioak. Desadostasunak ere izan ditugu, normala den moduan, baina gestio mailako ezadostasun handirik ez dago.

G. Udalbatza osatzen duten 17 zinegotzietatik 15 zinegotziren babesak dauka gobernu taldeak eta hori ere kontuan hartzekoa da, ez?

E. Duda barik, ia herritar guztien babesak daukate gobernuak eta onartu berri ditugun aurrekontuek. Hori oso kontuan hartzekoa da.

G. Hala ere, eta paradogikoa izan daitekeen arren, pentsatu daiteke kolokan egon litekeela indar abertzaleon arteko lankidetzak Bergaran. Hor dugu, esaterako, Jaurlaritzan gertatutakoa.

E. Lehenengo argi eduki behar dugu udaletxean zertarako gauden. Bai hemen eta bai udal guztietan, herritar denen beharrei erantzuteko gestio lana ahalik eta ondoen egiteko gauden hemen. Herritarren dirua ondo administratzea da kontua. Hala ere, askotan gertatzen zaigu, udalaren benetako lana zein den ahaztu egiten dugula eta politikari ematen diogula garrantzia. Dударik ez dago eztabaida politikoak ere izan behar direla udaletxean, baina horretarako beste erakunde eta eztabaida gune batzuk badaude, parlamen-



tua esaterako. Pena handia hartuko nuke, udaleko eguneroko lanetatik aparte, gizartean eta politika mailan sor daitezkeen beste arazo batzuek eraginda, egungo udal gobernuak aldatzeko erreflexio batean sartuko bagina. Atzera pausoa izango litzateke.

G. Beraz, egoera normalizatzeko bidea herri mailan indar abertzaleen arteko lankidetzaren bitartez etorriko da?

E. Dударik ez. Guk ez dugu frontetik nahi, iritzi guztiak errespetatu behar dira eta geure nortasunari heldu nahi diogu. Madriletik datozen mezuei eta

presio mediatikoari begira ezin gaitzke egon. Eta, gainera, bai PPK eta bai PSE-EEk hemen gobernatu nahi badute, bertako errealitatea kontuan izan beharko dute, Madriletik esaten dutenari begira egon barik.

G. Udal aurrekontuetan industria guneak eta lanpostu berriak sortzeko ahalegin berezia egin duzue. Baina, industrialdeaz gain, aurrekontuetan badira beste partida garrantzitsu batzuk?

E. Bai, Mayc ondoan 26.000 metro karratu erosteko ia 80 milioi pezeta bideratuko dira. Arau Subsidiarioetan lurrok zerbitzu gune gisa jasota daude, baina oraindik ez dugu zehaztu zertarako erabiliko ditugun. Beharrak aztertuko ditugu lehenbizi eta, ondoren, bertan zerbitzuertarako gunea, etxebizitzak edo dena delako egingo den erabakiko da. Edozein modutan, erabakia lehenbailehen hartu nahi dugu.

G. Hauteskundeetako programan etxebizitzak aipatzen zenituzten indar politiko guztiek. Babes ofizialekoak egiteko partidarik jaso da aurrekontuetan?

E. San Antonion 68 etxebizitza egingo dira eta, bestalde, babestutako etxebizitza berriak egiteko tokiak eta lurraz aztertzen ari gara. Legealdi honetan egingo dugu hori. Seguruen, hutsik eta egoera kaskarrean dauden hainbat etxe bota eta berriak egingo ditugu, herriaren erditik gertu dagoen auzoren batean, San Antonion esaterako.

G. Gazteentzako lokalaren kontua ere, azkenean, bideratu dela ematen du. Nola dago kontua?



E. Bai, Gazte Lokalaren proiektua bultzatu dutenekin hainbat bilera izan ditugu eta abenduan irtenbide bat planteatu zitzaion: Kartzela Zaharra eta honi erantsita dagoen kartzelazainaren etxea egokitu eta gazteei lagatzea. Horretarako, Jardun elkarteari ere Errotalde jauregiaren ondoko etxea berriztu eta bertara pasatzea eskaini zitzaion eta onartu dute. Baina gauzak ondo egiteko, lasai eta ondo pentsatuta egin behar dira. Egia da gazteak urte asko daramatzatela lokal barik, baina horren errua ez da udalarena izan. Aurtengo aurrekontuetan, Kultur Etxe ondoko edifizioaren proiektua egiteko diru zati bat jaso da eta lanak lehenbailehen egitea da asmoa. Bestalde, Kartzela Zaharreko lan batzuk ere aurreratzen joan

gaitzke. Honekin lotuta, esan behar da, Santa Anako ermitaren teilatua berritzen hasi direla eta parke osoa txukuntzeko proiektua ere aurtan egingo dela. Lanak aurtan hasten badira, hobe.

G. Arrizuriagako parkeari eta bertan egitekoa zen auditorioari buruz zer?

E. Auditorioaren inguruan hausnarketa egin dugu eta Seminarioko elizan egitea aztertzen ari gara. Zelako antzokia egin nahi dugu? Merezi du 1.500 lagunentzako egitea, ala ez litzateke hobe 500 edo 600 pertsonarentzako egitea? Eztabaida horretan dihardugu eta seguruen Seminarioan egingo dugu. Etxe hori ez da udalarena, baina estatuak hainbat inbertsio egin ditu bertan egitura sendotzeko eta ziur nago etorkizunean udalarentzat izango dela edifikioa. Kontu hau nahikoa aurreratuta dago eta zelako auditorioa nahi dugun zehazten dugunean, proiektua egingo dugu. Bestalde, esan nahi dut Zabalgotegiko aretoa egokitzeko 20 milioi pezeta aurreikusi direla aurtan.

G. Eta Ertzaintzak Arrizuriaga etxea lagatzen duenean?

E. Etxe horri zer erabilera emango zaion ez dugu erabaki oraindik: baliteke musika taldeentzako prestatzea, edota udal liburutegia bertara eramatea, baina horiek denak mahai gainean ditugu oraindik.

G. Agorroso ingo gunea berregokitzeko dirurik aurreikusi da?

E. Bergarak gabestia handia dauka kirol azpiegiturei dagokienez. Igerileku estaliak zaharkituta daude eta aurtengo abendurako Agorroso ingo gunea berregokitzeko aurreproiektua egin nahi du-

Auditorioaren inguruan, hausnarketa egin dugu eta Seminarioan egitea aztertzen ari gara

Abendurako, Agorroso ingo gunea berregokitzeko aurreproiektua egiteko asmoa daukagu

Debagoiengan sortu nahi diren komunikabideak direla eta, erabaki bat laister hartuko dugu

Mankomunitatea, berau osatzen duten udalen beharretara egon behar da, eta ez alderantziz

nekin lotuta dagoelako. Beraz, plaza hori aurten egingo da. Santa Marinako plazarako, bestalde, 40 milioi aurreikusi dira aurrekontuetan eta lanak laster hasiko dira. Ingurua urbanizatzen denean Zurraderoko merkatu txikia bertan kokatuko da. Irala kaleari dagokionez, ideia lehiaketa egiteko asmoa dugu eta horretarako ere aurrekontuetan diru zati bat sartu da.

G. Bestalde, Euskadiko Udal Intsumisioen Mankomunitaterako 551.000 pezeta onartu dituzue.

E. Bai, EHk eta EAk emendakina sartu zuten partida hori onartzeko eta EAJ abstenitu egin bazen ere, aurrera atera zen. Gure ustez intsumisioaren kontuetarako ere hor dago Eudel eta ez da Eudima sortu beharrik.

G. Bailarako euskara elkarteak bultzatu duten Goiena proiektuaren inguruan zer iritzi dauka udalak?

E. Debagoienarako sortu nahi diren komunikabideen inguruan, irtenbide bat topatu eta erantzun bat lehenbailehen ematea da nire asmoa, kontua luzatu egin da eta. Goiena egitasmoa hor dago, baina udalak proiektu hori eta beste iritzi batzuk kontrastatu behar ditu. Aste honetan bertan aditu batekin biltzekoa naiz. Bestalde, bailara osorako egitasmoa denez, berau osatzen dugun udal guztiak ados egon beharko ginateke proiektuarekin, guztiak izateko bertako kide. Proiektua aurrera atera dadin eta iraun dezan, udal guztiak konbentzituratu egon behar gara, inor ezin daiteke behartuta sartu. Dena de-

la, esan dudana bezala, uste dut lehenbailehen aurkituko diogula irtenbidea.

G. Debagoieneko Mankomunitateko buru ere bazara...

E. Mankomunitatearen inguruan, zertarako behar dugun eta bere lana zein den jakin nahi dut lehenbizi. Orain arte ez du behar zuen bezala funtzionatu. Mankomunitatea berau osatzen duten udalen beharretara egon behar da eta ez alderantziz eta, nire ustez, orain arte udalak Mankomunitatearen beharretara egon dira. Hau aldatu nahi dut eta, horretarako azterketa sakon bat egingo dugu lehenbizi eta, ondoren, plan estrategikoa. Bestalde, MCC taldearen Garaia egitasmoa bultzatuko dugu, bailarako oso garrantzitsua delako. Hala ere, proiektu honetan Bergara baztertu egin dela uste dut, Mondragon Unibertsitateak Bergaran ez duelako lizentziaturarik edo diplomaturarik aurreikusi. Hori aldatuko dela uste dut.

G. Eta Gipuzkoako Ur Partzuergo-ko buru izanik, nola dago Deba errekan saneamenduaren kontua?

E. Lanak bere bidetik doaz, baina Zubillagan jartzekoa zen depuradora, azkenean, Epele inguruan jarriko da. Bestalde, Bergarari dagokionez, Mekolaldekoa finkatuta dago eta une honetan Ibargaraiko etxeen obrak direla eta, kolektorea egiteko aprobetxatuko dugu, gero berriz ere kalea zulatzen hasi beharrean. Nik uste dut 2005. urterako ez bada, pare bat urte beranduago edo Deba errekan barboak edo eskailuak ikusiko ditugula. Ziur nago.<

gu. Horretarako, Bergara Kirol Elkartearekin akordio batera heldu behar gara futbol zelaiarekin zer egin erabakitze-ko. Herriak kirol azpiegitura mailan zer premia duen badakigu eta, orain, igerilekuei eta futbol zelaiari zer irtenbide eman erabaki behar dugu. Aurten ez da obrarik egingo, ez delako komeni, baina ingurua planifikatzeko proiektua egingo da, datorren urtean berrikuntza lanak egiten hasteko. Diputaziofik launtzak etortzea espero dugu.

G. Xabier Maria Munibe plaza, Kataibia ingurua eta Irala kalea txukuntzeko egitasmoak ere hor daude...

E. Lehenengoa dagoeneko eginda egon beharko litzateke, baina laster egingo da, Ibargarain egiten ari diren etxe berrien inguruaren urbanizazio la-

"Industria gune berrietarako 200 milioi bideratuko dira"

G. Industrialdeak garrantzia berezia izango du aurrekontuetan?

E. Gestio mailan egiteko daukagun lanik garrantzitsuena lanpostuak sortzea da, nire ustez, eta, horretarako, industria gune berriak bultzatzeko ahaleginak egin behar ditugu. Beraz, industrialdeak bultzatzeko apustu gogorra egin dugu, ez bakarrik aurtengo, baita hurrengo urteetarako ere. Aste honetan bertan inauguratu dugu Labegaraietako industrialdea eta, bestalde, aurrekontuetan beste 200 milioi pezeta sartu ditugu lur industrial berrietarako: 10.000 metro karratuko lursaila erosiko dugu herriko beste toki batean. Administrazioak industria ekimen berriak sortzeko lagundu behar du eta, horretarako, azpiegitura egokiak behar dira. Labegaraietako industrialdearen lehenengo pabilioiak ostegunean inauguratu ziren, baina beste hainbat lursailen jabetza Sprilur erakunde publikoarena da.



G. Eta Labegaraietako industrialdearen ondoan, errepidearen beste aldean zer egingo da?

E. Une honetan Aceralia enpresarekin negoziatioetan ari gara. Lehenbizi, enpresaren premiak zeintzuk diren ezagutuko ditugu eta, ondoren, geratzen diren lursailak Sprilur erakundeak erosiko ditu gune horretan zerbitzuetara bideratuko diren ekimenak bultzatzeko. Eskaera asko jaso ditugu, baina negoziatioetan ari gara.


Joaquin Rodriguez kataluniarra Gorlan irabazle gertatu zen

Beteranoen proban Alatz Larrañaga zazpigarren

Iberdrola taldeko Joaquin Rodriguez txirrindulari kataluniarrak irabazi zuen domekan jokatutako Gorlako igoraren 26. edizioa. Azken bost urteotan, lau aldiz nagusitu da Iberdrolako txirrindulariren bat Gorlako aldapetan.

Domekan Rodriguezek Juan Manuel Garate irundarri (azken bi urteetan irabazle) hartu zion erreleboa. Rodriguezek Lake Wair australiarra (Saunier Duval) eta Adolfo Garcia (Banaka) harapatu zituen Gorlako gainera heldu baino lehen eta helmuga baino lehenagoko kurban aurrea hartu zien. Azkenean, eragozpen handirik gabe, bere aurkariei nagusitu zitzaizen sprintean. Lake Wair eta Adolfo Garcia irabazlearen denbora bera egin zuten. Eguraldi txarra domekako protagonista nagusienetako bat izan genuen. Irteeran 93 txirrindulari izan ziren.

Rodriguezek 20 urte ditu eta bigarren denboraldia betetzen ari da Iberdrola taldean. Aurten bost proba korritu ditu eta bitan garaile suertatu da. Arabako Itzulia izango da bere hurrengo helburua. Domekan adierazi zuenez, oso balioagarriak izan zitzaizkion Garateren gomendioak; "azkenengo kurban lehenbiziko postua eskuratzea ezinbestekoa zela komentatu zidan eta nahiz eta hortik helmugara metro dezente egon, hori egiten saiatu naiz. Zorionez,



Joaquin Rodriguezek lehenbiziko postuan igaro zuen helmuga domekan.

GARA

gauzak primeran atera zaizkit eta oso garaipen inportantea lortu dut. Australiarrek ere asko sufritu du eta atzean ez nuela lagatzen ikusita, azken metrorarte

itxarotea erabaki dut".

Bergarako lau afizionatuk hartu zuten parte Gorlako igorran eta Saunier Duval taldean ari den Ion Unamuno izan genuen herriko

onena, 27. postuan, 22 minutu eta 10 segunduko denborarekin.

BETERANOEN PROBA

Bestalde, Ivan Santurdek eskuratu zuen garaipena beteteranoen proban. Santurdek nahiko erraz lortu zuen irabaztea, helmugan minutu bat eta lau segunduko alde atera baitzion Fernando Ibañez bigarren sailkatuari. Jose E. Fernandezek azken urteotako irabazleak hirugarren postuarekin konformatu behar izan zuen oraingon. Bergararre dagokienez, Alatz Larrañaga zazpigarren postuan sailkatu zen eta Ricardo Iturbe hamargarrena izan genuen. Beteranoen proban 28 lagunek hartu zuten parte.

SAILKAPENAK

Letra lodiz, bergararak

Beteranoak

1. Ivan Santurde	22'59"
2. Fernando Ibañez	24'03"
3. Jose E. Fernandez	24'23"
4. Xabier Mendiaraz	24'27"
5. Gonzalo Gorostiza	d.b.
6. Alfonso J. Agirre	24'47"
7. Alatz Larrañaga	24'47"
10. Ricardo Iturbe	26'04"

Afizionatuak

1. Joaquin Rodriguez (Iberdrola)	20'46"
2. Lake Wair (Saunier Duval)	d.b.
3. Adolfo Garcia (Banaka)	d.b.
4. Xabier Zandio (Banesto)	21'03"
27. Ion Unamuno (Saunier Duval)	22'10"
41. Arkaitz Mendizabal (CDR)	23'02"
52. Ander Agirre (Ulma Cegasa)	23'29"
71. Ion Mendizabal (CDR)	24'41"

Herritarrei zuzendutako Kirol medikuntza zerbitzua martxan

Zerbitzuak eskainitako oinarrizko azterketak Udal biltegian egingo dira eta esfortzu frogak Arrasateko Kiroldegian. Prezioei dagokienez, 18 urtetik gorako federatuek 4.250 pezeta ordaindu beharko dute oinarrizko azterketa egiteagatik eta 7.250 pezeta azterketa eta esfortzu proba egitearren. Lesioen tratamendurako prezioa, berriz, 4.950 pezetan finkatu da.

Aisialdiko kirolariei dagokienez, 5.850 pezeta baliatu oinarrizko azterketak, azterketak eta esfortzu frogak 8.950 pezeta eta, azkenik, lesioen tratamendurako 5.500 pezeta. Edurne Jimenez bergararra izango da kirol medikuntza zerbitzuko arduradunetako bat. Berarekin batera Alberto Garai kirol medikua ere izango da



Edurne Jimenez Kirol medikuntza zerbitzuan ibiliko da lanean.

ARTXIBOA

lanean. Iñaki Ugarteburu Kirol zerbitzuko teknikariaren arabera, "zerbitzu prebentibo bat eskaini nahi diegu kirola egiten duen edozein herritarri, kirola egin baino lehen jendeak

honelako azterketak egiteko ohitura hartu dezan, ez beharrak ebitatzearen bategere". Kirol medikuntza zerbitzuaren inguruko argibideak 943.77.91.67 zenbakian jaso daiteke.

Tenis pistaren inaugurazioa

Zapatu eguerdian Kiroldegiko tenis pista berriaren inaugurazio ekitaldia izan zen. Bertan, besteak beste, Iñaki Albisua Gipuzkoako tenis federazioko presidentea, Patxi Basauri Debagoieneko Mankomunitateko Kirol batzordeko presidentea, Angel Iturbe Oñatiko alkatea eta Nere Amaia Zabala, Juanjo Arrieta eta Aitor Goiti udal zinegotziak izan ziren. Zinta moztu ondoren, Ainhoa Zumalde eta Ana Podacaren arteko partidua jokatu zen eta Zumalde oñatiarra 7-5ko emaitzarekin nagusitu zitzaion gasteiztarrari. Bestalde, bihar, zapatua, Debagoieneko txapelketari hasiera emango zaio.

Udaleko Kirol zerbitzuak tenis ikastaroak (hasiera eta hobekuntza) antolatu ditu. Klaseak



Argazkian, tenis pistaren inaugurazio zinta moztu zeneko irudia.

DV

apiriletik ekainera bitartean izango dira, astelehen eta eguaztenetan. Era berean, tenis pista udaberri osorako erreserbatzeko eskaerak Kirol zerbitzuan egin daitezke. Orduz orduko erreserbak Kiroldegian egingo dira.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Aretxabaleta

Infantilak

Zapatua. 11:30. Ipintza

Bergara-Eibartarrak

Lehen mailako jubenilak

Zapatua. 16:30. Ipintza

Bergara-Sporting Herrera

Ohorezko kadeteak

Zapatua. 18:15. Ipintza

ESKUBALOA

Bergara-Urola

Jubenil mutilak

Domeka. 11:00. Kiroldegia

Bergara-Legazpia

Senior mutilak

Domeka. 12:15. Kiroldegia

ARETO FUTBOLA

Bergara-Urretxu

Jubenil mutilak

Zapatua. 12:30. Kiroldegia

KARATE

Herri arteko shotokan txapelketa

bihar, zapatua, 16:30etan Miguel

Altunako edifizio berrian

SASKIBALOA

Bergara-Tolosa

Senior neskek

Zapatua. 16:00. M. Lagundia

Bergara-Ceramics Apaolaza

Senior mutilak

Zapatua. 19:00. Kiroldegia

Bergara-Ordizia

Kadete mutilak

Domeka. 10:30. M. Lagundia

Bergara-Ostadar

Jubenil mutilak

Domeka. 12:15. M. Lagundia



Labegaraietako

futbito txapelketa

PARTIDUAK

ZAPATUAN BARRUAN

09:00: Bildurbarek-Ion Autoak	Aterpe
10:00: Aterpe-Vacalouras	Bildurbarek
16:00: Mo(ko)lotov-Etengabe	Urrutxurtu
17:00: Urrutxurtu-Shaktale	Antolaketa

DOMEKAN BARRUAN

09:00: A Ze Flaxa-Guadalest	Antolaketa
16:00: Canalejas-Mongatxurak	Antolaketa
17:00: Fac-Pagomendi	Antolaketa
18:00: P. Bergara-Patxaran T.	Amoskibar
19:00: Amoskibar-Uve Bikoitza	Patxaran T.

ARGI!

Partidu erabakigarriak

Sailkapenaren arabera, taldeak kopa eta liga txapelketetako kanporaketetan murgildurik daude dagoeneko. Astebukaera honetako partiduren bat berdinketarekin amaituz gero, penalti jaurtiketa bidez erabakiko da zein taldek egiten duen aurrera. Talde bakoitzak bost penalti jaurtiketa bota beharko ditu.

Informazio hau babesle hauei esker:

SAILKAPENAK

A multzoa

	P	J
1. Pagomendi	49	18
2. Irubide Jatetxea	35	18
3. Azpeitxi Jatetxea	31	18
4. Sirimiri Eri	30	18
5. Pinturas Bergara	25	18
6. Ari Ari	20	18
7. Etengabe	18	18
8. Mo(ko)lotov	13	18
9. Moskis	10	18
10. La Juve	9	18

B multzoa

	P	J
1. Bayer	45	18
2. Mongatxurak	40	18
3. Amoskibar	37	18
4. Urrutxurtu	32	18
5. Bildurbarek Opel Lam	22	18
6. Tom Cat Argandolas	18	18
7. Patxaran Team	18	18
8. Agirrebeña Jatetxea	14	18
9. Amilotx	13	18
10. Patatus	1	18

C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa Etxagi	46	18
2. Orzi	39	18
3. Shaktale	37	18
4. Ion Autoak	25	18
5. Buya	23	18
6. Uve Bikoitza	20	18
7. Vacalouras	14	18
8. Soropetroak	13	18
9. Agiñazpi	10	18
10. Torrekua	10	18

EMAITZAK

KOPAKO KANPORAKETAK

Patatus-Amilotx	1-6
Xurruapak-Torrekua	9-2
Mo(ko)lotov-Moskis	3-2
Patxaran Team-Komando Piperrak	6-6
Agirrebeña jatetxea-Etengabe	4-5
Vacalouras-La Juve	7-1
Ufala-Aterpe	1-2

LIGAKO KANPORAKETAK

Ion Autoak-Amoskibar	1-7
Errotagain-Azpeitxi jatetxea	3-1
Bayer-Irubide jatetxea	5-5
Sirimiri Eri-Orzi	2-2

Oharra

Berdinketarekin amaitu ziren partiduetan, Patxaran Team, Bayer eta Sirimiri Eri taldeak sailkatu ziren hurrengo kanporaketarako penalti jaurtiketei esker.

D multzoa

	P	J
1. Errotagain	47	18
2. Guadalest	40	18
3. Bar Canalejas	38	18
4. Fac	35	18
5. Artusamak	34	18
6. Txipiiron	23	18
7. Xurruapak	22	18
8. Komando Piperrak	7	18
9. Ufala	4	18
10. Aterpe	2	18

mahoneroak



ASIER RODRIGUEZ
Bergarako jokalaria


Zapatuan partidu ona jokatuta genuen Hernaniren aurka eta merezitako garai-pena lortu ere bai. Hasieratik asko presionatu genien Hernaniko jokalariei eta erraz errekerperatzen genuen baloia, ia partidu osoan zelaian nagusi izan ginen. Hernanik ez zuen itxura onik azaldu Agorrosinen eta sailkapeneko goikaldean egoteko talde nahiko makala dela iruditu zitzaizdan.

Golak ez ziren partiduko azken zatira arte iritsi. Nire gol bati esker aurreratu ginen markagailuan, baina handik gutxira epaileak kalera bota ninduen, bigarren txartel horia erakutsi eta gero. Hala ere, kontraerasoan arriskua sortzen jarraitu genuen eta jokalaria bat gutxiagorekin beste hiru gol sartzeko gauza izan ginen.


Zapatuko garaipenak indarra eman behar digu hurrengo bi asteotan izango ditugun partiduei begira. Elgoibar (kanpoan) eta Soduperen aurka emaitza positiboak lortuz gero, sailkapenean gora egin dezakegu.

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13



Irizar 2
943 76 14 95
JAUJA
KIROLAK

talde federatuen emaitzak

SASKIBALOA

Gernika 68; Bergara 65
Senior mutilak
Alde Zaharra 39; Bergara 51
Senior neskek
Atl. SS 74; Bergara 63
Jubenil mutilak
Santo Tomas 49; Bergara 50
Kadete mutilak
ESKUBALOA
Bergara 15; Arrate 25
Senior mutilak

Bergara 15; Hondarribia B 17
Kadete mutilak
Bergara 13; Hernani 17
Jubenil neskek
Bergara 25; Arrasate 18
Jubenil mutilak
Almen 22; Bergara 21
Jubenil mutilak
FUTBOLA
Bergara 4; Hernani 0
Hirugarren maila

Burumendi 0; Bergara 1
Lehen mailako jubenilak
Bergara 1; Ilintxa 2
Bigarren mailako jubenilak
Lengokoak 5; Bergara 4
Ohorezko kadeteak
Bergara 2; Aldapetarrak 1
Lehen mailako kadeteak
Almen 2; Bergara 1
Infantilak
Bergara 5; Amaikak Bat 2
Neskek

ARETO FUTBOLA

Bergara 4; Sport Authority 3
Senior mutilak
Bergara 2; Goierri B 2
Senior neskek
Ibarra 11; Bergara 3
Jubenil mutilak
PILOTA
Arrasate 3; Bergara 0
Deba Arroko Txapelketa
(kadeteetan 22-7, jubeniletan 22-21 eta seniorretan 22-13)

Otsein Saria

Hernaniren kontra jolakari hauek nabarmendu ditugu:
Asier Rodriguez 3 puntu
Oxel Apraiz 2 puntu
Jokin Mendiartz 1 puntu
Ettxeko partidua bakarrik hartzen dira kontuan.

kronika hirugarren mailako futbol taldea

Garaipen inportantea

BERGARA 4

HERNANI 0

Bergara: Markel Egaña, Jon Andueza, Etor Laskurain, Jokin Mendiaratz, Ander Berraondo, Mikel Osoro, Asier Rodriguez, Arkaitz Arana (Txonan Gallastegi, 78.min.), Oxel Apraiz, Jose-txo Lizarralde (Igor Alberdi, 87.min) eta Gorka Dueñas (Oskar Maiztegi, 81.min).

Golak: 1-0. Asier Rodriguez. 2-0. Gorka Dueñas. 3-0. Oxel Apraiz. 4-0. Oxel Apraiz.

Azken zazpi partiduetan garaipenik ezagutu ez eta azken bost partiduak jarraian galdu ondoren, Bergarak aurtengo denboraldiko goleadarik handiena lortu zuen zapatuan Hernani-



Argazkian, Asier Rodriguez Hernaniko jokalaria bati baloia lapurtu nahian. DV

ren aurka. Hernaniarrak sailkapeneko zazpigarren tokian zeuden eta, teoriar behintzat, neurketa zaila zuten mahoneroek. Baina bisitariak uste baino erresistentzia gutxiago erakutsi zuten eta Bergarak merezitako garaipena lortu zuen. Talde

bergarra 20 taldetatik sailkapeneko 17. tokian dago orain, 32 punturekin eta zapatuan berarekin berdindurik dagoen Elgoibar taldeari egin beharko dio bisita. Ezinbestekoa da bihar emaitza positibo bat lortzea liga amaieran *gol-averagea* alde

izateko. Gogoratu dezagun sailkapeneko azken hirurak kategoriaz jaitsiko direla eta laugarren talde batek ere maila galtzeko arriskua izan dezake. Beraz, argi ibili beharko dira mahoneroak.

Joan zen zapatuko partiduari dagokionez, emaitza engainagarria da; Bergara nagusi izan bazen ere, azken emaitza gehiegizkoa izan daiteke, gol guztiak azken orduerdian heldu baitziren. Asier Rodriguezek egin zuen etxekoan lehenbiziko gola 62. minutuan area barruan defentsaren urruntze bat jaso eta gero. Baloia eskuarekin ikutzeaz, Asierrek berak bigarren txartel horia ikusi zuen partidua amaitzeko 15 minutu falta zirela eta zaletuak kezkatzen hasi ziren. Hala ere, Bergarak markagailuari eutsi eta, hori gutxi balitz, beste hiru gol sartu zituen. Oxel Apraiz taldeko golegile nagusiak egin zituen azken biak, zalegoaren lasaitasunerako.

Azkenean, esan bezala, puntuak etxean geratu ziren eta aspaldiko partez zaletuak garaipena ospatzeko aukera izan zuten.

AITOR ZABALETA / Auto pilotoa

"Babesleri hemen jardutea interesatzen zaio"

Aitor Zabaleta (37 urte) pilotoa zapatuan hasiera emango dio Mendiko Igoeren Euskadiko Txapelketari, Zallan. Zabaletaren helburu nagusia iaz lortutako txapelari eustea izango da.

G. Zelakoa da biharko proba?
E. San Cosmen, Zallan, jokatu da eta aurreneko aldiz korrituko dut bertan. Lau kilometroko proba da, errepide estua eta labantsua da eta aldapaz bera 500 metro inguruko tartea dauka. Nire kotxerako ez da probarik aproposena baina garaipena eskuratzen ahaleginduko naiz.
G. Kotxean berrikuntzarik?
E. Lola BMW kotxearekin jarraituko dut. Suspentsioa eta

frenoak hobetu ditugu baina badakizu, kotxea errepidean probatu arte ez dakizu zer nolako erantzuna emango dizun. Dena den, uste dut kotxearekin lan ona egin dugula.

G. Euskadiko Txapelketan arituko zara. Zergatik baztertu dituzu Espainia eta Europako txapelketak?

E. Joan zen urtean Telefonicarekin hiru urteko kontratua sinatu nuen eta babesleri hemen jardutea interesatzen zaio. Alde batetik pena ematen dit, Europako txapelketa pen-

diente dudalako oraindik. Baina bertan parte hartzeko 50 milioi inguruko aurrekontua behar da eta Espainiako txapelketarako justu samar ibili naiz beste batzuetan. Etxean korritzearekin pozik nago.

G. Zenbat proba izango dira?

E. 15 bat. Hurrengoa apirilaren 16an Arraten izango da eta Gorka Apraiz (ekainaren 10ean) txapelketarako puntuagarria izango da.



1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Pisu txiki bat salgai Antzuolan. Etxabea. 943 76 60 20 (gauze).

Antzuolan, Eguzki auzoan. 943 76 64 47.

Pisua Fraiskozurin, ganbararekin. 103 m². 943 76 49 56.

Zubiaurre. 943 76 23 93.

Pisua salgai Zubietan. 943 76 12 61.

Antzuolan. 943 61 29 17 / 63 52 63 (Rakel).

EROSI

Bergaran etxea erosiko genuke. 943 21 99 02.

Etxea erosiko nuke alde zaharrean. 943 76 38 25.

Etxebizitza erosiko nuke Bergaran. 943 76 09 99.

Etxea erosiko nuke Benidormen; aukeran, 3 logeladuna eta itsaso ondoan. 943 76 24 54.

ERRENTAN EMATEKO

Bungalow bat Torreveijan, udan. Hondartzatik

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskajerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskajerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktatuak
Deiak
Bestelakoak

35 m²ko lokala alokairuan. 943 76 21 49.

Lokala alokairuan Martokan. 943 76 11 13.

4. LANA

ESKAITZAK

Apunteak, lanak eta era guztietako dokumentuak ordenadorez. 646 095 338.

Esperientziadun ileapaintzailea; 26 urte. 629 483 847.

Neska, administrari lanetarako eta ordenadorez informea pasatzeko gertu. 943 76 73 11 (Garbiñe).

Etxeko lanak, umeak zaindu edo dendari lanak. 636 76 25 70.

Emakumeak etxeak garbitu eta edadetuak zaindu. 943 76 09 33.

Etxeko lanak, haurrak zaindu edo dendari lanak. 943 76 60 56 (Joana).

22 urteko mutilak lan egingo luke zapatuetan (baserri lanak, e.a.). 943 78 26 77 (Arkaitz).

Etxeko lanak edo plan-txa orduka. 943 76 54 82.

gertu. 943 78 14 72.

Deitu 943 76 64 00 telefonora.

ETXE KONPARTITUAK

Logela hartuko nuke alokairuan, sukaldarako eskubidearekin. 943 76 46 64, goizez (Marilo).

Pisua konpartituko nuke. 667 52 48 98 (Andres).

Bolu. 2 plaza. 616 049 865.

Antzuola, Kalegoi. 943 76 47 16.

Masterreka (Pertxa azpian). 696 460 406.

Ozaeta. 943 76 73 00.

Garajea salgai Bolun. Deitu 943 76 19 69 telefonora.

Ibargarai. 1.500.000 PTA. 943 76 72 17.

ERRENTAN EMATEKO

Garajea alokairuan Zubiaurren. 943 76 23 53.

S. Marina. 943 76 41 88.

ERRENTAN HARTZEKO

Zubiaurren garajea hartuko nuke. 943 76 08 26.

3. LOKALAK

SALDU

Zubiaurren. 100 m². 13,5 milioi. 943 76 11 13.

Etxabe komertziala salgai edo alokairuan Aranerrekan. 943 76 32 00.

EROSI

Lokal komertziala erosi nahi nuke S. Lorentzon. 300 m². 607 82 53 06.

ERRENTAN EMATEKO

Bolun (100 m²) eta Arruriagan (18m²) lokalak alokairuan. 606 96 23 80.

Mugertzako gainean

Kabutzia
ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro 8 Tf.: 943 76 27 70 BERGARA

Garnish
Bitxitegia

San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57



Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

Pintura-lanak orokorrean

Pintura industrialak

Zoru arinak: sintasolak, moketak...

610 25 99 82 / 943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia. 20570 BERGARA

Bolu
liburutegia

Enmarkazioak

Ispiluak neurriak

Zurezko artikulua

Bergarako oleo eta

lumaxoak

Koldo Elizalde 1, behea
Tf. 943 76 70 60

Neska euskalduna goizez lan egiteko gertu. 943 76 23 41.

Txoferra lanerako prest, C eta C-1 gidabaimena eta garraioetarako dituen. 943 76 30 34.

Klinika laguntzaileak gaixoak edo zaharrak zainduko lituzke. 609 77 01 33 (Asis).

Neska bat goizez garbiketarako egiteko gertu. 943 76 38 73.

Neska lanerako gertu. 943 76 00 90.

Neska goizez lan egiteko gertu. 943 76 57 81.

ESKAERAK

Emakumea behar da umeak zaindu eta etxe-ko lanak egiteko, goizez. 943 76 56 90.

Neska behar da etxe-ko lanak egin eta umeak zaintzeko. 943 76 05 55.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAINTZAK

9-13 urtekoei mate, ingeles, e.a. ematen dizkiet. 943 76 33 68 (Maite).

Kitarra, soinu eta pandero klaseak ematen ditut. 943 76 45 73.

ESKAERAK

UBlko matematika klaseak hartuko nituzke. 943 76 33 23.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Seat Toledo V5. SS-BH. 943 76 54 19.

VW Passat 1.6. SS-T. 943 76 57 71.

Citroën AX 1.4. SS-AB. 200.000 PTA. 630 750 099.

Fiat Tipo 16v. (SS-AM). 300.000. 943 76 06 53.

Renault 5. (SS-V). 943 76 37 74.

Puch motorra. 30.000 pezeta. 943 76 29 95.

Opel Astra 1.6 GT. 943 76 00 12 (gauez).

Kawasaki Vulcan motorra (500 cc.). 617 76 67 60 / 943 76 27 00.

Renault 21 (SS-Z). 943 76 26 92.

Opel Kadett GSI 16V. Egoera ona. 943 79 75 11 / 98 08 (Mikel).

Kadett 1.4. 630 750 099.

8. DENETARIK

SALDU

16" Ilantak salgai, egoera onean eta merke. 943 76 54 19.

Bi oheko logela oso bat eta egongelako armarua salgai. Estreintatu gabe. 943 12 74 03.

Terrazarako 10 mahai borobil herdoilgaitz egoera onean, eta plastikozko 45 aulki, prezio onean. 943 76 07 92.

Karro denda egoera onean. 943 78 70 74.

Sukaldeko altzariak, arraska eta kanpaia salgai. 943 76 55 63.

Hapro solariuma. Egoera onean. 943 76 51 76.

Imar karro-denda. Deitu 943 76 59 56 telefonora.

Bateria salgai. Merke. 943 76 50 77 (Manu).

Aulkiak eta mahaia. 943 76 46 90.

Jangelako mahaia eta sei aulki. 943 76 34 48.

EROSI

Diskoak, singleak eta LPak erosten ditut. 943 52 65 77.

LPak erosten ditut. 943 79 76 90.

Terrenoa erosiko nuke Bergara inguruan ura eramateko aukerarekin. 943 76 32 14 (18:30etatik aurrera).

EMAN

1-7 urte bitarteko umeendako erropa eta bainera, konketa eta komuna opari. 943 76 44 34.

HARTU

Caritasek sukalderako armaruak behar ditu. Deitu 943 76 11 98 telefonora.

GALDU

Forro polar gorria; Seminario ingurua. 943 76 27 04.

Argazki kamera galdu nuen martxoaren 4an. 943 76 54 20 (Nerea).



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

KAMIOI GIDARIA
Debagoiena.27274/9

SUKALDARIA
Gernika-Bermeo. 27610/3

KOMERTZIALA
Donostia.29163/9

EREDUGILEA
Arabar lautada. 29426/2

SUKALDARI LAGUNTZAILEA
Kantabria.29490/5

DISEINATZAILE GRAFIKOA
Bilbo.29739/2

MANTENIMENDU ELEKTRONIKOA
Ezkerraldea.29753/5

MUNTATZAILEAK 2
Ezkerraldea.29754/4

TORNULARI 1/ FRESATZAILE 1
Donostia.29944/8

MANTENIMENDURAKO TEKNIKARIA
Goierri.30028/2

PROIEKTU ZUZENDARIA
Bilbo.30145/1

INFORMATIKA TEKNIKARIA
Bilbo.30149/1

INFORMATIKARIA, LANBIDE HEZIKETA II
Bilbo.30153/1

FRESATZAILEAK 2
Errioxa.30185/2

PRODUKTU JARTZAILEA
Eskuinaldea.30359/4

AROTZA
Bilbo.30360/2

DIESEL MOTOREEN MEKANIKARIA
Bilbo.30372/1

KOMERTZIALA
Bilbo. 28085/2

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era. Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

Bergarako Udala



Bergarako udalak Agorrosingo udal igerilekuetarako ALDIBATERAKO LANGILEAK kontratatzeko deialdia

- 4 pertsona udako kanpainarako
- 4 pertsona oporraldietan ordezkatetako egiteko.

Instantziak aurkezteko azken eguna: apirilaren 7ko 13:00ak

Deialdia arautzen duten oinarriak eta gainontzeko argibideak jasotzeko, Udaletxeko idazkaritzara jo behar da.

Alkateak

✕ Bataioak, jaunartzeak, enpresa bazkariak eta lagunartekoak

✕ Karta eta menu berezien zerbitzua



BASTER-ALDE
J A T E X E A

Galartza auzoa • ARETXABAETA
Tf.: 943 79 24 58

Dendako SALTZAILEA
behar da hilabeterako
943 76 13 23

SANTOS
IRRATI-TB

TELEFONIA MUGIKORRA
• SUKALDEKO ALTZARIAK •
ARGIZTAPENA

Masterreka 2. Tf. 943 76 26 10

Berritasun ugarirekin dator aurtengo udaleko kultur eskaintza

**Aurtengo aurrekontutik 179 milioi pezeta zuzendu dira Kultura batzordera. Milioi hauekin hainbat inbertsio burutuko dira, diru kopuruz handiagoak batzuk, txikia-
goak besteak; ez haatik garrantzia gutxiagokoak.**

Azken hauen artean badira aipamen berezia merezi dutenak: jaiak girotzeko erraldoi bikote berria, udara partean kontzertu eta zine emanaldiak, aurreneko Txistulari Eguna...

ERRALDOI BIKOTEA

Erraldoi bikote berria erosi da 1.200.000 pezetatan. Orain artean zeudenak bi baserritar baziren, hauek bi kaletar dotore izango dira. Kukumakoak arduratu dira erraldoiak egiteaz eta emakumezkoak lora zesta bat eta gizonezkoak aterkia eramango du, biak "Bergara 1926" film laburreko ideia batek hartuta.

UZTAIL ETA ABUZTUAN EKITALDIAK

Uztail zein abuztuko hilabetei bizitasuna emateko asmoz, kontzertu emanaldiak eta zinea eskainiko dira. Uztai-



Maiatzaren 14an Txistulari Eguna ospatuko da.

ARTXIBOA

lean, ostegunero jazz kontzertuak izango dira Espoioian eta Ganbara tabernako terrazan. Horrez gain, uztailan, Portugaleteko Nazioarteko Jaialdian

parte hartuko duen talde brasil-darra izango dugu herrian.

Abuztuan, zinea izango da San Martin plazan eguenetan. Bost proiektio izango dira.

PENTEKOSTE JAIK

Jaien inguruan nabarmendu daitezkeen berrikuntzen artean, San Martin plazan jarriko den txosna dago. Kokapen zehatza ziurtatu gabe dagoen arren, plazari bizitasuna emateko asmoz jarriko da.

Gainontzeko txosnek, Bideberrin jarraituko dute, eta erre-kara ematen duen aldea babestu egingo da nahiz eta nola zehaztu gabe dagoen oraindik.

Bestalde jaietako ostiralean, Benito Lertxundi kantariak kontzertua eskainiko du Bergarako Orkestra Sinfonikoarekin batera.

TXISTULARI EGUNA

Aurreneko Txistulari Alardea egingo da. Bergarako Udala Txistulari Bandak, Musika Eskolako Txistulari Taldeak eta Eibar, Antzuola, Aretxabaleta eta beste hainbat herritako txistulariak etorriko dira maiatzaren 14an.

Txorimalo lehiaketarako izena emateko epea zabalik

Aurten ere Txorimalo lehiaketa antolatu du Jardunek Erramu Zapatarako. Apirilaren 15ean ospatuko da Erramu Zapatuko feria eta Txorimalo lehiaketan parte hartu nahi duenak apirilaren 12a baino lehen eman beharko du izena Jardunen (Kartzela Zaharrean) edota 943 76 36 61 eta 943 76 08 19 telefonoetan.

Lehiaketan nahi duen edonork har dezake parte, bakarka zein taldeka eta hiru taldetan banatuko da: 14tik beherakoak, 15-60 urte artekoak eta 60tik gorakoak.

Txorimaloak ferixan egongo dira ikusgai 11:00etatik aurrera. Sari banaketa egun berean eguerdiko 13:00ean egingo da.

Argazkian, iazko lehiaketako irabazleak.



Justo Garate Arriola beka bergarar bati aurten

Sonia Aperribai 24 urteko gazte bergararrak eskuratu du Justo Garate Arriola beka. Sonia Aperribai Historian lizentziatua da eta Bergarako emakumezkoaren figura izango da bere lanaren ardatz: "Generoko harremanak Bergaran: gure emakumeen ohiko bizitza lehenengo industrigintza garaian, 1870-1930" ikerketa lana burutuko du.

Historialari gazteak esandakoaren arabera, ikasle garaian dagoeneko, historia batik bat gizezkoengan oinarritzen zela nabaritu zuen, "emakumezkoek dagokienez, hutsune handia nabaritzen nuen". Hau da emakumea bere lanaren ardatz izateko arrazoia. Ildo berari jarraituz, lana burutzeko zailtasunak zeintzuk izan daitezkeen aurreikusi du; izan ere, "emakumezkoek 1870-1930 urte bitartean lan munduan izandako presentzia ez dago askotan dokumentuetan jasota edo, baldin badago



Sonia Aperribai Historian lizentziatua da.

ere, xehetasun oso gutxirekin" Sonia Aperribai azaldutakoaren arabera.

Jarraituko duen lan ildoak lehenik bibliografikoa izango da, eta ondoren artxibategikoa batez ere. Erabiliko dituen iturriak honakoak: udal artxiboa, hezkuntza mundua aztertzeke Mariaren Lagundiko artxiboa eta lan mundua jorratzeko Algodonerako artxiboa.

erreseinak



Ana Urkiza
Desira izoztuak
Ipuinak

Ana Urkiza ondarroarraren lehenengo liburua dugu hau. Orainarte lan gehienak han-hemen argitaratuak ditu Urkizak eta hainbat literatur sari ere jaso ditu. *Desira izoztuak* ipuin bilduma bat dugu, bi ataletan banatuta: *Ezkutuko desirak* da lehenengoa eta sei ipuinek osatzen dute; *Ageriko desirak* bigarrena, eta zortzi ipuinek osatuta dago. Gizon-emakumeon sentimendu eta jokabideetan arakatu du Ana Urkizak, begi zorrotzez eta idazkera dotorez hamalau ipuinok asmatzeko. Maitemina, patua, heriotza, sexua... gure nahi eta ezin ezkutuenak biluzten ditu egileak istorio biribil hauetan.

-Elkarlanean. 153 orr. 1.600 PTA



F. Muguruza
Brigadistak Sound System. Erremix-ak
Rocka

Fermin Muguruza oparoak beste disko bat kaleratu berri du. Disko berri honetan, Brigadistak sound system diskoko hainbat kantaren erremix-ak daude, ez ditugu, beraz kanta berriak entzungo, aipatu diskoko kanteekin egindako jolasak baizik. Brigadistak sound system iaz kaleratu zuen Muguruza irundarrak, eta hementxo kantez baliatuz kaleratu du hementxo aurkezten dizuegun hau. Zazpi abestiz osatuta dago, eta horrez gain, ordenadoreko CD-rom-ean ikusteko Urrun kantaren bideoa.

-Esan Ozenki Records. 1.000 PTA

bergara ezagutzen lehiaketa

Petu-Petuan eta Hik Galdeu gaur finalean

Petu-Petuan eta Hik Galdeu dira finalera pasatuko diren bi taldeak. Sutsu jokatu dituzte final erdiak Asmaizu, Misfits Petu-Petuan eta Hik Galdeu taldeek, baina gogor aritu ostean, Petu-Petuan eta Hik Galdeu gailendu dira. Ez dira makalak gainera Petu-Petuan eta Hik Galdeu, iaz ere hauek biak pasatu ziren finalera. Gaur, beraz, egun erabakigarria da hauentzat eta gogotsu jardun beharko dute saria eskuratzeko. Bataren zein bestearen jarraitzaileak izanez gero, animatzera joan beharko duzue Kartzela Zaharrera, lehia gogorra baita gaur hantxe izango dena.

FINALERDIAK:

HIK GALDEU	248 puntu
PETU-PETUAN	220 puntu
ASMAIZU	198 puntu
MISFITS	155 puntu

FINALA JOKATUKO DUTENAK:

PETU PETUAN eta **HIK GALDEU**

Kartzela Zaharrean, gaur, 19:30etan



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55



Urteaga 9
Tf. 943 76 18 45

denborapasa

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

LUMA

Ezker eskuma

1. Arboladiak. 2. Lokamuts. 3. Ubela. Pluralean, infusio-mota. 4. Ezohikoak. Oxigenoa. 5. Suari dariona. Bizkarrezurra eratzten duen hezurrezko segmentua. 6. Interjekzioa. Labore-mota. Bat. 7. Errusiako enperadore. Jupiterren satelitea. Kontsonente errepikatua. 8. Arazoa. Pozik. 9. Jainko egiptoarra. Ni. Edo. 10. Bat. Etxeko abereak.

Goitik behera

1. Portuko langile. 2. Aldarte onekoa. 3. Haserre. Lehenengo eta azkena. Kontsonantea. 4. Betea. Irrika. 5. Pasea. Euskaraz eta kitto! 6. Zamorako autoetan. Hosto. Bokal errepikatua. 7. Metal-mota. Röntgen. 8. Izeba. Gehiegia. 9. Ate, hitz elkarketan. Bokala. Jaurtigaia. 10. Fruitu tropikala. Igarobideak.

Soluzioa

Ezker eskuma
 1. Zuhaitzak. 2. Amesgaitza. 3. Marea. Teak. 4. Arrarak. O. 5. Kea. Ornoa. 6. Eti Garia. I. 7. Tsar. 10. Bb. 8. Auzia. Alai. 9. Ra. Neu. Ala. 10. I. Zakurrak.
Goitik behera
 1. Zamaletari. 2. Umoretzua. 3. Herra. Az. Z. 4. Asea. Grina. 5. Igaroa. Aek. 6. Za. Orri. Uu. 7. Titanioa. R. 8. Izekoa. Lar. 9. Ata. A. Bala. 10. Koko. Ibiak.

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar




Erdialdeko zein bi kaletan daude atari hauek?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

1. Zein elkartetako kide da Agustin Unzurrunzaga bergarra?
 A- SOS Balkanes
 B- SOS Arrazakeria
 C- Medicus Mundi
2. Nor izan da Gorko txirrindulari probako irabazlea beterranoetan?
 A- Joaquin Rodriguez
 B- Ivan Santurde
 C- Jose E. Fernandez
3. Zein bergarrek eskuratu berri du Justo Garate Arriola beka?
 A- Mariasun Landa
 B- Marijose Olaziregi
 C- Sonia Aperribai



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileen artean!



Aurreko aleko saria, **Irene Gabilondorentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Ireneri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Garaikoetxea, Gariketxe edo Otxuena** Galde Debalde: **1-B, 2-A, 3-B**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

Carbonell
 oliba-olioa 0,4°, litroa
459 PTA!
 Super BMen beti eskaintzarik onenak!

Azken lau urtietan irabazi dau San Martiñetako etxeko loren lehiaketia. Txikittatik dauka lorendako zaletasuna, eta Etxe-Alai baserrixa loraz jositta dauka. Gaiñera, udaberrixa sartu garela-ta, etxe inguru zoragarriak dauzka.

Zer dauka basarriak kaliak ez daukanik?

Bi gauza oso diferentiak dira. Kalia be gustatzen jat, baiña bizitzeko nahixago dot basarrixa, hau da nere terrenua.

Zeaittik loragintza? Nondik datorkizu afiziñua?

Txiki-txikittatik. Aittari asko gustatzen jakon, eta berak asko erakutsi zoztan.

Neguko eta udaberri-udako lora eta landariak dare. Negurako landareren bat gomendatuko zeniguke?

Ziklamenek kanpuan ondo irauten dabe, eta barrurako be onak dira.

Eta udaberri-udako bat?

Baltsamiñak eta margaritak gustatzen jat gehixenbat.

Loratagietarako gustokuenak?

Polittenak salbiak dira.

Eta bat bakarria hautatzekotan?

Baltsamiñak, iñungo duda barik.

Zenbat lora eta landare dauzkozu?

Uff! Asko, sekula ez dittut kontau.

Egixa al da on egiten diela landare eta lorei hitzegiteak?

Ez dakitt. Neuk ez jet berbarik egitten, baiña egixa da kariñuakin eta etengabe zaindu bihar diela.

Ze zainketa berezi eskatzen dabe lora eta landariek?

Inportantiena ura kontrolatzia da, ur kantidade justua euki bihar dabe, ez gehixegi eta ezta gutxigi be.

Fidela Gabilondo

Lan asko emoten dabe?

Bai, egixa esan, bai. Neuk orduak eta orduak emoten dittut lorak zaintzen. Lapi-kua be behin baiño gehixagotan erre jat.

Trukoren bat emongo zeniguke?

Ez dakitt trukuak diran, baiña satsa eta lur ona erabiltzia oso inportantia dala uste dot.

Azkenengo lau urtietan zeuk irabazi dozu San Martiñetako lehiaketia. Horrek motibauko zaittu, ezta?

Bueno, askotan neu bakarrik aurkezten naiz, eta ez jat meritorik ikusten horri.

Denbora librian ze egittia gustatzen jatsu, lorak zaintziaz aparte?

Eskulanak: tapetiak, egurrakin eta arto orrixekin dekoraziñorako lora artifizialak...

Ze urtaro gustatzen jatsu gehixen?

Udaberrixa.

Udazkeneko paisajia gustatzen jatsu?

Paisajia estetikoki bai, baiña bestela ez jat gehixegi gustatzen udazkena.

Ze albiste gustatuko jatsun irakurtzia bihar goizian periodikuan?

Bakia lortu dogula.

Eta bukatzeko, amets bat?

Biaje luze bat egittia. Loterixia tokau ezkeru, mundu guztixa ezagutzera jungo nintzake gustora.



JOXAN
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24
Tf. 943 76 70 29

Ugarrixa merenderoa

Elosuko bidean

BERGARA
943 76 28 92



izeder

ARTE DEKORATIBOKO ikastaroak

943 76 71 05. Arruriaga 2


PILI GISASOLA

Santiveri

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

Zurradero 2 behea.
☎ 943 76 58 83


MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1
943 76 72 73

Mizpildi 8
943 76 12 32



Herriko pilota txapelketa, 1969

Garai batean herri mailan jokatzeko zen Juan Irigoien Memoriala pilota txapelketako argazkia duzue goikoa. Bertan, herriko ikastetxeetako ikasleek parte hartzen zuten eta adinaren arabera alebin, infantil, jubenil eta senior mailak bereizten ziren.

Partaidetza handia izaten zen eta bizpahiru hilabetez jokatzeko txapelketa. Juan Irigoien *El Correo Español* egunkariako berriemai-lea izan genuen bere garaian eta, esan bezala, txapelketa bere omenez jokatzeko zen. Partiduak domeka goizetan izaten ziren eta partaideak kaleko erroparekin aritzen ziren. Final-atarako, berriz, txuriz kantxaritzen ziren, argazkian ikusten den bezala.

Erretratua 1969. urteko edizioakoa da. Horra hor zeintzuk diren argazkikoak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Julio Askasibar, ezezaguna, Antxon Arazkonaga, Jose Manuel Elkoroberezibar, Juanjo Gonzalez, Jabier Samaniego, Felix Larrañaga, orduko Gipuzkoako pilota federazio-ko presidentea, Josean Olabarria, Jose Antonio Ojanguren, Juan Mari Eginio, Etxeberria, Jose Ignacio Arruti, Fernando Juaristi, Juan Mari Errasti, Lenisoro (aurrerago), Carlos Bernier, Luarizaristi eta Manu Muniategi.

Aurrean: Iñigo Idarreta, Jose Manuel Fernandez Maure (kopa eskuartearen duena), Edu Muruamendiaraz, Joseba Askasibar, Jesus Mari Atorrasagasti "Xoxo" (aurrerago), Paulino Arriola, Iñaki Berasategi, Agustin Iñarra, Miguel Perez, ezezaguna eta Jose Mari Laskurain.

*Argazkia: Bergarako Udal Agiritegia.
Roman Larrañaga fondoa*

FRONTOI



TABERNA

Fraiskozuri z/g. 943 76 05 09



zumelaga

JATETXEA

54 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



3.000.000 ibilgailu baino
gehiago aseguratuta
lasai-lasai errepidean




Problemarik gabe

Egin kontuak! 2.400 bulezo, 12.000 lagun zure zerbitzura, 4.000 konponketa gune



MAPFRE

Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.



M mooby

Kruz Gallastegi 9 / 943 76 54 48 / mooby@airtel.net

Zeramika, arte unibertsala



OMU
ZERAMIKAK

Biltegia eta bulegoak: Meatzerreka, 6

Tel./Faxa: 943 79 14 28

ARRASATE

Erakusketa: Ignacio Zuloaga, 4

Tel.: 943 79 07 20

ARRASATE

Orain erakustoki berria, Ignacio Zuloagan

